EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila

Doktorego-tesia

Korreferentzia-ebazpena euskarazko testuetan

Ander Soraluze Irureta

2017

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila

Korreferentzia-ebazpena euskarazko testuetan

Ander Soraluze Iruretak Olatz Arregi Uriarte eta Xabier Arregi Iparragirreren zuzendaritzapean egindako tesiaren txostena, Euskal Herriko Unibertsitatean Informatikan Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostia, 2017ko maiatza.

A todos nos gusta que lo bueno dure siempre, pero luego dura lo que tiene que durar, normalmente, más de lo debido.

Francis Diéz

Eskerrak

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi nizkieke tesi-lan honen zuzendariak izan diren Olatz eta Xabierri, bidea irekitzeagatik, bidean gidatzeagatik, konfiantzagatik eta pazientziagatik. Umorea eta lana uztartzen bikainak izateagatik eta tunel luze eta ilunen amaieran beti argia dagoela erakusteagatik. Eskerrik asko Donostiako *aitatxo* eta *amatxo*. Arantza zuri ere mila esker, Xabierren hutsunea hain ongi betetzeagatik.

Ixakide guztiei, tesi hau gauzatzeko eman dizkidazuen gomendio eta laguntza guztiagatik eta hasiera hasieratik, bederatzi urte jada IXA taldean hasi nintzela, taldearen parte sentiarazteagatik.

318 bulegoko lankideei, berogailuaren tenperatura aukeratzeko sortutako eztabaidatxoez aparte oso giro ona dagoelako bulegoan. Eskerrik asko pasillora bidaltzearen mehatxua ez betetzeagatik. *Gustura nago zuekin, jada ez dut bulego txikira joan nahi!*

I am also very grateful to Massimo Poesio and the whole Language and Computation Group at School for Computer Science and Electronic Engineering (CSEE) of the Essex University. You were exceptional hosts during my stay as a visitor researcher in the United Kingdom. It was an unforgettable experience.

Donostiako kuadrillatxoari lanetik kanpo pasatu ditugun eta oraindik pasatzeko dauzkagun momentu zoragarri guztiengatik. Noizko hurrengo kazuela? Hor doakizue proposamen bat: *1, 2, Aspes, 5, 6, Fregona, 8, 9, Aldatu izarak!, 11, Hija dejale dejale, 13, Elvira. Ueeeeeeeee. Txin txin!*

Azpeitiko lagunak ere ezin ahaztu. Donostiara bizitzera etorri nintzenetik

nahi baino gutxiago egon gara elkarrekin, ea hemendik aurrera gehiago egoteko aukera daukagun. Eskerrik asko Azpeitira joandako bakoitzean eskaini dizkidazuen tartetxoengatik eta tesia bukatzeko sartu didazuen presioagatik. *Ez dut tesiko kurtsorik errepikatu!*

Donostian egindako lagun berri guztiei, urte hauetan guztietan zehar etxean bezala sentitu naiz zuen alboan.

Ostegun gauetako pintxopotelariei ere mila esker, laneko buruhausteak ahaztu eta astea ondo amaitzeko erremediorik onena izan zaretelako. *Gora Matia kaleko pintxopoteak!*

Gracias a las camareras del Pako's por haberme cuidado tan bien.

Bukatzeko, nola ez familia eskertu nahiko nuke. Aita, Ama, Jon eta Leire. Eskerrik asko bizitzan hartu ditudan erabaki guztietan zuen babesa eskaintzeagatik eta une zailetan alboan egoteagatik. Hurrengo bazkaria nire kontu! Ama, hau bukatzean ez naiz *rector* izango *doctor* baizik.

Aita nahiz eta orain dela gutxi utzi gintuzun, beti egongo zara gure artean. Mila mila esker gugatik egin duzun guztiagatik. Tesi hau zuri eskaini nahi dizut. Ah eta bihar pasako naiz *sin falta* zu bisitatzera!

Esker instituzionalak

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzari ikerketa-lan hau egiteko emandako ikertzaileak prestatzeko bekarengatik.

Laburpena

Gaur egun, korreferentzia-ebazpen automatikoa gakotzat har dezakegu testuak ulertu ahal izateko; ondorioz, behar-beharrezkoa da diskurtsoaren ulerkuntza sakona eskatzen duten Lengoaia Naturalaren Prozesamenduko (NLP) hainbat atazatan.

Testu bateko bi espresio testualek objektu berbera adierazi edo erreferentziatzen dutenean, bi espresio horien artean korreferentzia-erlazio bat dagoela esan ohi da. Testu batean ager daitezkeen espresio testual horien arteko korreferentzia-erlazioak ebaztea helburu duen atazari korreferentzia-ebazpena deritzo.

Tesi-lan hau, hizkuntzalaritza konputazionalaren arloan kokatzen da eta euskaraz idatzitako testuen korreferentzia-ebazpen automatikoa du helburu, zehazkiago esanda, euskarazko korreferentzia-ebazpen automatikoa gauzatzeko dagoen baliabide eta tresnen hutsunea betetzea du helburu.

Tesi-lan honetan, lehenik euskarazko testuetan ager daitezkeen espresio testualak automatikoki identifikatzeko garatu dugun erregelatan oinarritutako tresna azaltzen da.

Ondoren, Stanfordeko unibertsitatean ingeleserako diseinatu den erregelatan oinarritutako korreferentzia-ebazpenerako sistema euskararen ezaugarrietara nola egokitu den eta ezagutza-base semantikoak erabiliz nola hobetu dugun aurkezten da.

Bukatzeko, ikasketa automatikoan oinarritzen den BART korreferentzia-ebazpenerako sistema euskarara egokitzeko eta hobetzeko egindako lana azaltzen da.

Gaien aurkibidea

SARRERA

1 Tesi-lanaren aurkezpen orokorra

1.1 Sarrera eta motibazioa

Tesi lan hau, hizkuntzalaritza konputazionalaren arloan kokatzen da eta euskaraz idatzitako testuen korreferentzia-ebazpen automatikoa du helburu.

Hizkuntzalaritza konputazionalean honela defini genezake korreferentzia-ebazpena:

> "Testu bateko bi espresio testualek objektu berbera adierazi edo erreferentziatzen dutenean, bi espresio horien artean korreferentzia-erlazio bat dagoela esan ohi da. Testu batean ager daitezkeen espresio testual horien arteko korreferentzia-erlazioak ebaztea helburu duen atazari korreferentzia-ebazpena deritzo."

Honako esaldian, adibidez:

(1) Nazio Batuen Erakundea izan zen bitartekari eta hark hartu zuen prozesuaren ardura.

Nazio Batuen Erakundea, *bitartekari* eta *hark* espresio testualen artean korreferentzia-erlazioa dagoela ikus daiteke, hiruek Nazio Batuen Erakundeari egiten baitiote erreferentzia.

Azken urteetan, hizkuntzalaritza konputazionalean lan ugarik izan dute korreferentzia-ebazpena aztergai, aipatuenetakoak Mitkov (2002), Recasens and Martí (2010) eta Poesio *et al.* (2016) dira.

Euskararen kasua hizpide dutenen artean Ceberio *et al.* (2008), Soraluze *et al.* (2015b) edota Garcia Azkoaga (2016) lanak aipa ditzakegu.

Ikuspuntu konputazionaletik korreferentzia-ebazpena terminoa *Message Understanding Conference* (MUC-6, 1995) konferentzian zehaztu zen lehen aldiz. Hizkuntzalaritza konputazionalean korreferentzia terminoa anaforaren sinonimotzat hartzen da. Hala ere, erabaki horrek eztabaida teoriko ugari (van Deemter and Kibble, 1995) sortu ditu.

Gaur egun, korreferentzia-ebazpen automatikoa gakotzat har dezakegu testuak ulertu ahal izateko (Recasens, 2010); ondorioz, behar-beharrezkoa da diskurtsoaren ulerkuntza sakona eskatzen duten Lengoaia Naturalaren Prozesamenduko (NLP) hainbat atazatan; adibidez, informazioaren erauzketan (McCarthy and Lehnert, 1995), testuen laburpenean (Steinberger *et al.*, 2007), galdera-erantzuteko sistemetan (Vicedo and Ferrández, 2006), itzulpen automatikoan (Peral *et al.*, 1999), sentimenduen analisian (Nicolov *et al.*, 2008) edota irakurketa automatikoan (Poon *et al.*, 2010).

Ataza honetan sarritan erabiltzen diren bi termino *entitatea* eta *aipamena* dira. Entitatea mundu errealeko objektua edo objektu multzoa dela esaten da; aipamena, aldiz, entitate bati erreferentzia egiten dion espresio testuala da (Doddington *et al.*, 2004).

Azaldutako terminoak modu argiagoan ulertzeko, azter dezagun sakonago lehengo adibidea.

(2) [Nazio Batuen Erakundea] izan zen [bitartekari] eta [hark] hartu zuen [prozesuaren ardura].

Adibide horretan, kortxete artean lau aipamen ikus ditzakegu, [Nazio Batuen Erakundea], [bitartekari], [hark] eta [prozesuaren ardura]. Garbi ikusten da [Nazio Batuen Erakundea], [bitartekari] eta [hark] aipamenek mundu errealeko objektu berbera erreferentziatzen dutela, hau da, entitate bera erreferentziatzen dute, nahiz eta horretarako espresio testual desberdinak erabili, beraz, korreferenteak direla esan dezakegu.

Ohikoa da korreferentzia-ebazpena bi azpi-ataza nagusitan banatzea: aipamenen detekzioa, batetik, eta erreferentzien ebazpena, bestetik (Pradhan *et al.*, 2011). Hau da, lehenbizi testuko aipamenak detektatzen dira, eta, ondoren erabakitzen da zein aipamenek egiten dioten erreferentzia entitate berari. 2. adibidearekin jarraituz, aipamen-detekzioan egin beharrekoa lau aipamenak zuzen identifikatzea da. Korreferenzia-ebazpenean berriz, [Nazio Batuen Erakundea], [bitartekari] eta [hark] aipamenak lotu egin behar dira, mundu errealeko entitate bera adierazten dute eta.

Korreferentzia-ebazpena gauzatzeak, adibidez, itzulpen automatikoan nola lagun dezakeen jabetzeko, pentsa dezagun 2. adibidea ingelesera itzuli nahi

dugula. Hona hemen itzulpen zuzen posible bat:

(3) [The United Nations Organisation] was [a mediator] and [it] took charge of [the process].

Itxura batean itzulpenak ez du konplexutasun handirik erakusten, hala ere, *hark* izenordainaren itzulpenak badu bere zailtasuna. Gizakiok, adibidea irakurtzean, erraz ulertzeko gai gara *hark* izenordaina *Nazio Batuen Erakundea* izen berezi bizigabea ez errepikatzeagatik erabili dela, eta ondorioz, ingeleseko *it* hirugarren pertsona singular bizigabeetarako erabiltzen den izenordainaz itzuli behar dugula. Itzulpen automatikoa gauzatzean ordea, itzultzaile automatikoak zalantza izango luke *hark* izenordaina *she*, *he* edo *it* izenordainarekin itzuli beharko lukeen.

Adibidea aztertu ondoren, garbi ikusten da korreferentzia-ebazpena lagungarria izan daitekeela ezaugarri desberdinak dituzten hizkuntzen arteko itzulpen automatikoa gauzatzeko. Antzeko ideia aurkezten da Miculicich Werlen and Popescu-Belis (2017) lanean ere. Lan horretan korreferentzia-erlazioak erabiltzen dituzte gazteleratik ingeleserako itzulpen automatikoa hobetzeko. Zehatzago esanda, izenordainen itzulpena hobetzeko erabiltzen dituzte korreferentzia-erlazioak, gaztelera *pro-drop* hizkuntza izanik eta ingelesa ez, ingeleseko itzulpenean agertu beharreko izenordain batzuk elidituta ager baitaitezke gaztelerazko testuetan. Elididutako izenordain horien aurrekari zuzena identifikatzeak garrantzitsua dela erakusten dute autoreek.

Euskarara etorrita, ezaguna da hizkuntza gutxituek urri dituztela baliabide linguistikoak, hizkuntza handi eta ahaltsuen aldean. Gainera, euskara hizkuntza isolatua da ez baitu inongo loturarik eta antzekotasunik bere inguruan dituen indoeuropear hizkuntzekin. Hizkuntza eranskari, buru-azken, *pro-drop* eta ordena librekoa da (Laka, 1996). Hori guztia dela eta, hizkuntzaren prozesamenduko atazetarako tresna eraginkorrak garatzea erronka handia da.

Tesi-lan hau Euskal Herriko Unibertsitateko IXA ikerketa-taldearen jardunean kokatzen da. IXA taldeak ia 30 urte daramatza hizkuntzalaritza konputazionalaren arloan lanean, eta urte horietan zehar euskararen analisi linguistiko konputazionalerako analisi-kate sendo bat garatu du (Aduriz *et al.*, 2004; Otegi *et al.*, 2016). Analisi-katea testuak analizatzeko erabiltzen diren oinarrizko tresnen multzoa da, eta tresna horiek geruzaka antolatuta daude. Geruza bakoitzak aurrekoak eskaintzen dion informazioa erabiltzen du sarrera moduan, eta jasotako analisia informazio linguistiko berriarekin

aberasten du. Bukaeran, maila desberdinetan analizatutako testua itzultzen du.

Korreferentzia-ebazpenari dagokionez, IXA taldean euskarazko izenordainen ebazpenerako ikasketa automatikoan oinarritutako Arregi *et al.* (2010) lana bakarrik zegoen argitaratuta tesi lan hau hasi aurretik. Ondorioz, tesilan honen helburu nagusia hauxe da: euskarazko korreferentzia-ebazpen automatikoa gauzatzeko dagoen baliabide eta tresnen hutsunea betetzea eta garatutako baliabide horiek IXAko analisi-katean integratzea.

1.2 Tesi-txostenaren eskema

Honako tesi hau bost artikuluz osatutako bilduma da. Bilduma honetako artikuluak hiru atal nagusitan bana daitezke.

Lehenengo atalean aipamen-detekzioan egindako lana aurkertuzko da. Bigarrenean, erregelatan oinarritutako korreferentzia-ebazpenaren inguruan egindako lanak aurkeztuko dira. Hirugarren atalean, berriz, ikasketa automatikoan oinarritutako korrereferentzia-ebazpenean gauzatutako lanen nondik norakoak azalduko dira.

Artikulu-bildumaren aurretik, sarrera eta arloaren egoera azalduko dira. Amaieran berriz, ondorioak eta etorkizuneko lanak. Gainera, artikulu bakoitzaren aurretik egindakoaren euskarazko laburpena emango da.

Honakoak dira artikulu-bildumaren hiru atalak eta atal bakoitzean aurkezten diren artikuluak:

1. Atala: Aipamen-detekzioa.

1. Soraluze A., Arregi O., Arregi X., and Díaz De Ilarraza A. 2016. **Improving mention detection for Basque based on a deep error analysis**. *Natural Language Engineering*, 23(3), 351–384.

2. Atala: Korreferentzia-ebazpena.
Erregelatan oinarritutako sistema.

2. Soraluze A., Arregi O., Arregi X., and Díaz De Ilarraza A. In revision. **Adaptation of the Stanford Deterministic Coreference Resolution System to a morphologically rich language**. Submitted to *Language Resources and Evaluation*.

3. Soraluze A., Arregi O., Arregi X., and Díaz De Ilarraza A. 2017. **Enriching Basque Coreference Resolution System using Semantic Knowledge sources**. In *Proceedings of the 2nd Workshop on Coreference Resolution Beyond OntoNotes (CORBON 2017)*, 8–16, Valencia, Spain.

3. Atala: Korreferentzia-ebazpena.
Ikasketa automatikoan oinarritutako sistema.

4. Soraluze A., Arregi O., Arregi X., and Díaz de Ilarraza A., Kabadjov M., and Poesio M. 2016. **Coreference Resolution for the Basque Language with BART**. In *Proceedings of the Workshop on Coreference Resolution Beyond OntoNotes (CORBON 2016)*, 67–73, San Diego, California.

5. Soraluze A., Arregi O., Arregi X., and Díaz de Ilarraza A. In revision. **Improving BART coreference resolution system for Basque with semantic knowledge**. Submitted to *Natural Language Engineering: Special Issue on Knowledge-Rich Coreference Resolution*.

1.3 Tesi honen garapenetik atera diren beste argitalpenak

Jarrain tesiaren garapenean zehar argitaratu diren beste artikuluak zerrendatzen dira. 1., 3. eta 4. artikuluak tesiarekin zuzenki lotutakoak dira, hala ere, ez dira tesi-txosteneko artikulu bilduman sartu, bilduman agertzen diren artikuluak hauen hedapenak direlako. 2. artikulua kolaborazio lan baten emaitza da.

1. Soraluze A., Arregi O., Arregi X., Ceberio K., and Díaz de Ilarraza A. 2012. **Mention Detection: First Steps in the Development of a Basque Coreference Resolution System**. In *KONVENS 2012, The 11th Conference on Natural Language Processing*, 128–136, Vienna, Austria.

2. Gonzalez-Dios I., Aranzabe M.J., Díaz de Ilarraza A., and Soraluze A. 2013. **Detecting Apposition for Text Simplification in Basque**. In *Proceedings of the 14th International Conference on Computational*

Linguistics and Intelligent Text Processing - Volume 2, 513–524, Samos, Greece.

3. Soraluze A., Arregi O., Arregi X., and Díaz de Ilarraza A. 2015. **Coreference Resolution for Morphologically Rich Languages. Adaptation of the Stanford System to Basque**. *Procesamiento del Lenguaje Natural.* 55:23–30.

4. Soraluze A., Arregi O., Arregi X., and Díaz de Ilarraza A. 2015. **Korreferentzia-ebazpena euskaraz idatzitako testuetan**. In *I. Ikergazte: Nazioarteko ikerketa euskaraz*, 676–684, Durango.

1.4 Tesiaren ekarpen nagusiak

Laburbilduz, honakoak dira tesi-lan honen ekarpen nagusiak:

1. Atala: Aipamen-detekzioa.

- Euskararako aipamen-detektatzaile automatikoa diseinatu eta inplementatu da. Oinarrian egoera finituko teknologia erabiltzen du eta garapena euskarako aipamenen azterketa linguistikoan oinarrituta egin da. Gainera, aipamen-detekzioak korreferentzia-ebazpenean duen eragina aztertu da.

- Hizkuntzalarien etiketatze-lana erraztu ahal izateko eta aipamenak testu hutsetik etiketatzen hasi beharrik ez izateko, garatu dugun aipamen-detektatzaile automatikoa erabiliz EPEC corpusaren zati bat etiketatu da. Horretarako, aipamen-detektatzailearen emaitza MMAX2 tresnan erabili ahal izateko prestatu da. MMAX2 tresnak eskaintzen duen, maila anitzeko etiketatzeari esker, automatikoki etiketatutako aipamenen zuzenketa eta korreferentzia-kateen eskuzko etiketatzea ahalbidetu da. Guztira 44383 hitzez osatutako corpusa landu da, 12792 aipamen eta 1934 korreferentzia-erlazioz osatutako urre-patroia sortuz. Urre-patroi hori eskuragarri[1] jarri da.

- Aipamen-detektatzailea Gonzalez-Dios *et al.* (2013) lanean erabili da, euskarazko testuen sinplifikaziorako erabiltzen den aposizio-detektatzailearekin konbinatuz aposizio egituren detekzioa hobetzeko.

[1] http://ixa2.si.ehu.es/epec-koref/epec-koref_v1.0.tgz

2. Atala: Korreferentzia-ebazpena. Erregelatan oinarritutako sistema.

- Stanfordeko unibertsitatean ingeleserako diseinatu den erregelatan oinarritutako korreferentzia-ebazpenerako sistema (Lee *et al.*, 2013) euskararen ezaugarrietara egokitu da. Hala nola, euskararen morfologia aberatsa edo ordena-librea bezalako ezaugarriak kontuan hartu dira egokitzapena egiteko orduan.

- Euskaltzaindiak eskaintzen dituen baliabideak oinarri hartuta, Stanfordeko sisteman integratu diren bi lexikoi egokitu dira. Lexikoi horiek beste atazaren batean erabilgarriak izan daitezke. Honakoak dira egokituko lexikoiak:

  1) 3109 sarrera dituen euskal, frantses eta gaztelerazko pertsona izenen generoari buruzko informazioa duen lexikoia
  2) 373 sarrera dituen nazio mailako gentilizioen euskarazko lexikoia

- Euskaraz idatzitako testuen prozesamendu automatikorako ixaKat analisikatean integratu eta eskuragarri[2] jarri da egokitutako sistema.

- QTLeap[3] (Quality Translation by Deep Language Engineering Approaches) proiektuan (FP7-ICT-2013.4.1-610516) euskararako 4 corpusetan korreferentzia-erlazioak automatikoki etiketatu dira gure sistema erabiliz. Hauek dira corpus horien datuak:

Corpusa	Tokenak	Korreferentzia-erlazioak
Elhuyar-QTLeap	10.639.863	1.551.340
GNOME-QTLeap	4.194.823	563.570
News-QTLeap	20.869	2.278
QTLeap	56.927	6.103

- Hizkuntza- eta hizketa-teknologiak ikertzea eta ikerketaren emaitzak aplikazio bihurtu eta jendearen eskura jartzea helburu zuen Ber2Tek[4] proiektuan (IE12-333) erabili da euskarara egokitu dugun Stanfordeko

[2] http://ixa2.si.ehu.es/ixakat/ixa-pipe-coref-eu.php
[3] http://qtleap.eu/
[4] http://ber2tek.eus/eu/hasiera

korreferentzia-ebazpenerako sistema, literatura-kritiketako korreferentzia-erlazioak automatikoki etiketatzeko.

- Egokitutako sistema hobetu da ezagutza-base semantikoak erabiliz, zehazki esanda WordNet eta Wikipedia. Sistemaren hobekuntza, erroreanalisi sakona egin eta sistemak munduaren ezagutza eta ezagutza semantikoa beharrezkoa den korreferentzia-erlazioak ebazteko zuen gabeziaz jabetuta egin da.

3. Atala: Korreferentzia-ebazpena. Ikasketa automatikoan oinarritutako sistema.

- Erregelatan oinarritutako sistema egokitzeaz gain, BART ikasketa automatikoan oinarritzen den korreferentzia-ebazpenerako sistema (Versley *et al.*, 2008b) ere euskarara egokitu da.

- BART sistema euskal Wikipediako 263.316 orrialdetatik erauzitako ezagutzarekin aberastu da. Horretarako, batetik berbideraketa orriek eskaintzen diguten informazioa erabili da. Bestetik, *piped link* egituretatik entitate izendunen izen-laburdurak, pseudonimoak, laburtzapenak eta erauzi dira. Azkenik, gai konkretu bati buruzko orrialdeen zerrendak biltzen dituzten orrialdeetatik entitateen ezaugarriak lortu dira.

- Wikipediatik erauzitako informazio hori gordetzeko hiru taulaz osatutako datu-basea sortu da, 263.316 artikulu erabiliz. Entitate izendunen izen-laburdurak, pseudonimoak eta laburtzapenak gordetzen dituen taulak 93.240 sarrera ditu. 118.131 sarrera dituen taula sortu da Wikipediako berbideraketak erabiliz. Azkenik, entitateen ezaugarriak biltzen dituen taulak 20.276 sarrera ditu. Datu-basea hizkuntzaren prozesamenduko beste atazetan erabiltzeko baliabide aberatsa da.

2 Aurrekariak

Kapitulu honetan tesi-lan honen aurrekariak aurkeztuko ditugu. Horretarako, lehenbizi korreferentzia-ebazpenak izan duen bilakaera aztertuko dugu, hastapenetatik gaur arte argitaratu diren lan garrantzitsuenak azalduz. Ondoren, korreferentzia-ebazpenaren parte kontsideratzen den aipamen-detekzio atazaren nondik norakoak aurkeztuko dira. Jarraian, bete-betean korreferentzia-ebazpenaren gaiari helduko diogu. Ataza honetarako erabili ohi diren teknikak, ereduak eta ezaugarriak azalduko dira lehenik. Eskuragarri dauden corpusak aipatuko dira gero. Ezagunenak diren korreferentzia-ebazpenerako sistemak aurkeztuko dira ondoren. Korreferentzia-ebazpenean semantikaren erabilerak duen garrantzia ikusteko azpiatal bat eskainiko zaio gai honi eta hizkuntza desberdinetarako garatu diren sistemak aipatuko dira gero. Kapitulua amaitzeko, korreferentzia-ebazpena ebaluatzeko erabiltzen diren ebaluazio-metrikak azalduko dira.

2.1 Bilakaera

Korreferentzia-ebazpenaren hastapena 60-90eko hamarkadetan kokatu ohi da. Urte haietan korreferentzia-ebazpena lengoaia naturalaren prozesamenduko azpiatazatzat hartzen zen eta itzulpen automatikoaren edo sistema adituen testuinguruan kokatzen zen, adibidez Bobrow-ren (1964) STUDENT izeneko sistema eta Woods *et al.*-en (1974) LUNAR izenekoa.

Garai hartako lanik garrantzitsuena Hobbs-en (1978) "Resolving Pronoun References" dela esan daiteke. Urteak aurrera egin ahala hainbat lan argitaratu baziren ere, Carter-ek (1987) proposatzen zuen "Shallow Processing

Anaphor Resolver (SPAR)" eta Lappin and Leass-en (1994) "An algorithm for pronominal anaphora resolution" artikuluak dira esanguratsuenak. Azken lan hori hurrengo urteetan argitaratu zirenen aitzindari har genezake eta mugarria izan zen izenordainen ebazpenerako, RAP (Resolution of Anaphora Procedure) algoritmo sendoa deskribatzen baitu xehetasun maila handiz. Hori dela eta, korreferentzia-ebazpenaren arloan gehien erreferentziatutako lanetako bat da.

Alderdi teorikoan ikerketa handia egin zen *focusing* eta diskurtsoaren egituraren azterketan, horien artean daude Sidner-ek argitaratutako lanak (Sidner, 1979, 1981, 1983) eta Grosz and Sidner-en (1986) lanak. Gainera, *centering* teoriaren oinarriak ere garai horretan finkatu ziren (Grosz *et al.*, 1983).

Azken bi hamarkadei dagokienez, garrantzi handia eman zaio korreferentzia-ebazpenari eta gai honen inguruan kongresu ugari antolatu dira. *Message Understanding Conference* (MUC-6, 1995; MUC-7, 1998) konferentzietan korreferentziaren inguruko ataza espezifikoak antolatu ziren. Kongresu hauei esker, lehen aldiz, korreferentzia-ebazpenerako sistemen konparaketa ahalbidetu zen. Horretaz gain, korreferentzia-ebazpenerako etiketatutako lehen corpusak sortu ziren eta horrek corpusetan oinarritutako tekniken sorrera ekarri zuen ataza honetara. Garai horretakoa da hain ezaguna eta esanguratsua egin den Soon *et al.* (2001) lana. Lan horretan, gainbegiratutako erabakitze-zuhaitzen ikasketa egiten da MUC-6 eta MUC-7 kongresuetako corpusak erabilita. Etiketatutako corpusak eskuragarri izateak Lappin eta Leas-en erregelatan oinarritutako ikuspuntuaren birfintzea ahalbidetu zuen, eta RAP algoritmoaren ondorengotzat har daitezkeen lanen argitaratzea ekarri zuen. Adibidez, Mitkov-ek (1998) bere MARS sistemaren oinarriak garatu zituen. Izenordainen inguruan egindako ikerketa ugariz aparte, izenordainak ez ziren beste korrefentzia-erlazio mota espezifikoen lanketa ere egin zen garai haietan. Horien artean ditugu, adibidez, izen-sintagma mugatuen inguruan egindako Poesio and Vieira (1998) eta Vieira and Poesio (2000) lanak.

Garai bertsuan ospatu ziren Discourse Anaphora and Anaphor Resolution Colloquium konferentziak (DAARC, 1996, 1998, 2000). Korreferentzia-ebazpenaren inguruan lanean zebiltzan ikerlari ugarirentzako topagune egokia izan ziren konferentzia horiek. *The Automatic Content Extraction (ACE)* kongresuan ere jorratu zen korreferentzia-ebazpena, bertan aurredefinitutako entitate multzo baten arteko erlazioak identifikatzen saiatu ziren (Doddington *et al.*, 2004), eta *Anaphora Resolution Exercise (ARE)* kongresuak

anafora ebazpena eta izen-sintagmen arteko korreferentzia-ebazpena hartu zituen ardatz (Orasan *et al.*, 2008).

Aurrerago ikusiko dugun moduan, urteak aurrera joan ahala ingelesa ez zen beste hizkuntzetan ere korreferentzia-ebazpena garrantzia hartzen joan zen. Azken urteetako kongresuei dagokienez, *SemEval-2010 Task 1: Coreference Resolution in Multiple Languages* atazan korreferentzia-ebazpena gauzatu behar zen hizkuntza desberdinetan (Recasens *et al.*, 2010). Hurrengo urtean, *CoNLL-2011 Shared Task: Modeling Unrestricted Coreference in OntoNotes* atazan (Pradhan *et al.*, 2011), parte-hartzaileek Ontonotes corpusean (Pradhan *et al.*, 2007) ebatzi behar izan zuten korreferentzia ingeleserako. 2011ko ataza ingeleserako soilik izan bazen ere, *CoNLL-2012 Shared Task: Modeling Multilingual Unrestricted Coreference in OntoNotes* atazak (Pradhan *et al.*, 2012) ingelesaren, txineraren eta arabieraren gaineko korreferentzia-ebazpena egitea eskatzen zuen.

Azken urteetan geldirik zegoela zirudien korreferentzia-ebazpenaren inguruko ikerketa, hala ere, 2016 eta 2017an ospatu diren *Coreference Resolution Beyond Ontonotes* (CORBON) kongresuetan (Ogrodniczuk and Ng, 2016, 2017) oraindik indarrean dagoela ikusi da eta hizkuntza gutxituen inguruan egindako lanen presentzia nabarmen hazi da.

2.2 Aipamen-detekzioa

Ikerketa ugaritan frogatu den moduan (Broscheit *et al.*, 2010a; Stoyanov *et al.*, 2009; Hacioglu *et al.*, 2005; Zhekova and Kübler, 2010) aipamen-detekzioak berebiziko garrantzia du korreferentzia-ebazpenerako sistemetan. Ataza honetan egindako erroreek hurrengo pausoetara hedatu eta hauetan lortzen den eraginkortasuna murrizten dute. Hori dela eta, korreferentzia-ebazpenerako sistemetan aipamen-detekzioa hobetzeak arloaren egoera nabarmen hobetuko luke. Ideia hori frogatu da korreferentzia-ebazpenean aipamen-detekzioaren eragina kuantifikatu den hainbat lanetan. Adibidez, Uryupina (2008) lanean aurkezten den korreferentzia-ebazpenerako sistemaren estaldura-erroren % 35 identifikatu gabeko aipamenen ondorioz dela adierazten da eta Uryupina (2010) lanean doitasun erroreen % 20 gaizki identifikatutako aipamenen ondorioz dela gehitzen dute. Chang *et al.* (2011) lanean bi sistema konparatzen dituzte, batetik, aipamenak automatikoki detektatzen dituen sistema, eta bestetik, aipamenen urre-patroia (*gold standard*) erabiltzen duen sistema. Azken horrek emaitzak % 15 eta % 18 bitartean hobetzen

ditu.

Domeinu espezifikoetan ere aipamen-detekzio egokia egitea funtsezkoa dela defendatu da. Kim *et al.*-ek (2011) diotenez, biomedikuntza arlo espezifikorako prestatutako korreferentzia-ebazpenerako sistemetan ere, aipamen-detektatzaile eraginkorra izatea oso garrantzitsua da. Autoreek behatu dutenen arabera, automatikoki detektatutako aipamenak edo urre-patroiak erabiliz, MUC ebaluazio-irizpideari jarraituz haien sistemak lortzen dituen emaitzak 49,69 izatetik 87,32 izatera pasatzen dira. Hobekuntza nabarmena da, zalantzarik gabe.

Aipamen-detekzioan erabilitako teknologiari dagokionez, bi multzo nagusi bereiz genitzake: erregelatan oinarritutako teknikak eta ikasketa automatikoan oinarritutakoak. Orokorrean, erregelatan oinarritutako aipamen-detektatzaileek doitasun balio altuagoak lortzen dituzte ikasketa automatikoan oinarritutakoek baino (Pradhan *et al.*, 2011). Aipamen-detekzioan estaldura balio baxuak lortzeak eragin zuzena du ondoren korreferentzia-ebazpenean, detektatu gabe utzitako aipamen horiek berreskuratzeko aukerarik ez baitago.

Semeval-2010 Task 1 atazan korreferentzia-ebazpenerako sistema gehienek erregelatan oinarritutako aipamen-detektatzaileak erabili zituzten (Zhekova and Kübler, 2010; Uryupina, 2010; Attardi *et al.*, 2010; Broscheit *et al.*, 2010a). Uryupina and Moschitti (2013) lanean aipatzen denez, *CoNLL 2011 Shared Task* atazan ere parte-hartzaile gehienek aipamenen mugak detektatzeko erregelatan oinarritutako teknikak erabili zituzten. Hala ere, urtebete beranduagoko *CoNLL 2012ko Shared Task* atazan, erregelatan oinarritutako aipamen-detektzaileek emaitza kaskarrak lortu zituzten txinerara eta arabierara egokitu behar izan zirenean. Argi ikusi zen erregelatan oinarritutako aipamen-detektatzaileak beste hizkuntza batera egokitzea lan konplexua zela.

2.3 Korreferentzia-ebazpena

2.3.1 Teknikak

Korreferentzia-ebazpenerako erabiltzen diren algoritmoen artean aipamen-detekzioan bezala, bi mota nagusi bereiz genitzake: erregelatan oinarritutakoak eta ikasketa automatikoa erabiltzen dutenak. Azken horiek ere bi multzo nagusitan banatzen dira: ikasketa gainbegiratuko tekniketan oinarri-

tutakoak eta ikasketa ez-gainbegiratukoak.

Ikasketa gainbegiratuko teknikek korreferentzia-kateekin etiketatutako corpusak erabiltzen dituzte ikasketa prozesua gauzatzeko, ez-gainbegiratukoek, aldiz, ez. Ikasketa prozesurako etiketatutako corpusik behar ez izateak ikasketa ez-gainbegiratuko teknikak erakargarri egiten baditu ere, gainbegiratutako teknikak arrakastatsuagoak dira.

Erregelatan oinarritutako teknikak

Gaur egun ezagutzen ditugun korreferentzia-ebazpenerako sistemen aurrekariak erregelatan oinarritzen ziren izenordainen ebazpenerako sistemak ziren (Hobbs, 1978; Rich and LuperFoy, 1988; Carbonell and Brown, 1988; Alshawi, 1990; Kameyama, 1997a; Tetreault, 2001; Palomar *et al.*, 2001) bereziki murriztapen eta lehentasun erregelak aplikatzen zituztenak.

MUC-6 eta MUC-7 konferentzietan ere erregelatan oinarritutako hainbat sistema (Appelt *et al.*, 1995; Gaizauskas *et al.*, 1995; Kameyama, 1997b; Humphreys *et al.*, 1998) aurkeztu ziren. Kongresu hauetan sortutako anotazio kopuru esanguratsua dela eta, ikasketa automatikoko tekniketan oinarritutako sistemen hazkunde nabarmena eman zen hurrengo urteetan, eta erregelatan oinarritutako tekniken erabilera nabarmen murriztu zen.

Hala ere, badirudi azken urteetan berriro erregelatan oinarritutako tekniken loraldia eman dela. Sistema ugari garatu dira, horien artean *CoNLL 2011 Shared Task*-ean lehenengo postua lortu zuen Stanfordeko korreferentzia-ebazpenerako sistema determinista (Lee *et al.*, 2013).

Ikasketa gainbegiratuko teknikak

Ikasketa gainbegiratuan oinarritutako korreferentzia-ebazpenerako sistema bat sortzeko garaian honako hauek hartu behar dira kontuan: i) entrenamendurako instantziak sortzeko metodoa edo eredua, ii) instantziak errepresentatzeko erabiliko diren ezaugarri linguistikoak, eta iii) sailkatzailea entrenatzeko erabiliko den ikasketa algoritmoa.

i) **Instantziak sortzeko metodoa**

- **Aipamen-bikote eredua** (*mention-pair model*)
  Aipamen-bikote ereduak korreferentzia-ebazpena sailkapen ataza moduan planteatzen du non sailkatzaile bat entrenatzen den bi

aipamen korrerefenteak diren edo ez erabakitzeko. Bi pauso nagusi ditu ereduak:

1) Aipamen bikoteak korreferente edo ez-korreferente gisa sailkatzen dira (*pairwise classification*).
2) Korreferente gisa sailkatu diren aipamen-bikoteetatik abiatuta korreferentzia-kateak sortzen dira, multzokatze-algoritmoak erabiliz.

Entrenamendurako instantziak sortzeko modu naturalena aipamen-bikote bakoitzeko instantzia berri bat sortzea bada ere, metodo hori ez da normalki erabiltzen. Testu bateko aipamen-bikote gehienak ez dira korreferenteak izaten eta ondorioz ikasketarako sortzen den multzoa ez da orekatua, hau da, instantzia negatibo askoz gehiago daude positiboak baino. Klaseen arteko desoreka hori konpondu nahian, metodo ugari proposatu dira, horien artean Soon *et al.* (1999, 2001) lanetan aurkezten dena. Metodo horren arabera, m_k aipamen bat emanik, instantzia positiboa sortzen da m_k eta justu aurretik gertuena duen m_j aurrekariarekin, eta instantzia negatiboak m_k aipamena eta m_j artean dauden beste $m_{j+1}, ..., m_{k-1}$ aipamenekin. Klaseen desoreka gehiago murrizteko asmotan, ikerlariek hainbat iragazketa-teknika proposatu dituzte instantziak sortzeko metodoaren gainean, adibidez, numero eta genero desberdina dituzten aipamen bikoteekin instantziarik ez sortzea, korreferente izateko aukerak txikiak baitira (Strube *et al.*, 2002; Yang *et al.*, 2003). Berrikiago, Sapena *et al.* (2011) lanean clustering algoritmo bat proposatzen dute instantzia negatiboen kopurua murrizteko. Clustering algoritmo horrek instantzia positiboak erabiltzen ditu zentroide moduan. Instantzia positibo bakoitzeko, d atalasea baino distantzia txikiago edo berdinera dauden instantzia negatiboak soilik erabiltzen dira ikasketa garaian. Bi instantziaren arteko distantzia kalkulatzeko balio desberdinak dituzten ezaugarriak begiratzen dira. Hau da, edozein instantzia positiborekiko d atalasea baino ezaugarri balio desberdin gehiago dituzten instantzia negatiborik ez da sortzen.

Test garaian, multzokatze algoritmo bat beharrezkoa da bikote horiek korreferentzia-kateetan biltzeko. Multzokatze-algoritmoei dagokienez, hiru bereiz genitzake. Gertuena-lehenengo (*closest-first*), hoberena-lehenengo (*best-first*) eta elkarketa agresiboa (*ag-*

gresive merge). Gertuena-lehenengo estrategiak, m_k aipamena testuan bere aurretik duen eta positiboki sailkatua izan den lehenengo aurrekari posiblearekin elkartzen du, edo elkartu gabe uzten du positiboki sailkatutako instantziarik topatzen ez bada (Soon *et al.*, 2001). Hoberena-lehenengo multzokatze-estrategia Ng and Cardie-k (2002c) proposatu zuten. Estrategia horren arabera, m_k aipamenaren aurrekaritzat, korreferente izateko baliorik hoberena duen aipamena hartzen da, beti ere balio horrek ezarri den atalasea gainditzen badu. Elkarketa agresiboan (McCarthy and Lehnert, 1995; Ng, 2005) aldiz, aipamen bakoitza aurretik dituen eta korreferente izateko positiboki sailkatu diren beste aipamen guztiekin elkartzen da estaldura hobetzea lortzeko asmoz. Hala ere, aipamen-bikoteen sailkapen fasean egiten diren eta multzokatze garaian egiten diren erroreek korreferentzia-kate desegokiak eta kontraesankorrak sor ditzakete. Korreferentzia-kateetan sor daitezkeen kontraesan horiek konpontzeko Hoste and van den Bosch-ek (2007) Levenshteinen distantzian oinarritutako korreferentzia-kateen post-zuzenketa metodo bat proposatzen dute, doitasuna zertxobait hobetzea lortuz.

(Soon *et al.*, 2001) eta (Ng and Cardie, 2002a) lanei esker ikasketa automatikoan oinarritutako korreferentzia-ebazpenerako eredurik esanguratsuenetakoa bilakatu da aipamen-bikote eredua, eta gaur egun korreferentzia-ebazpenerako oinarri-lerro estandar gisa erabili ohi bada ere, ereduak baditu hainbat ahultasun:

(a) Aipamen batentzako aurrekari hautagai posibleak independenteki begiratzen dira eta, beraz, ezinezkoa da hautagai bat beste hautagaiek baino hobea den edo ez jakitea.

(b) Ereduari espresibotasuna falta zaio, hau da, gerta daiteke bi aipamenetatik lortutako informazioa nahikoa ez izatea korreferentzia-erabaki egoki bat hartzeko.

- **Entitate-aipamen eredua** (*entity-mention model*)

  Aipamen-bikote ereduari kritikatzen zaion espresibotasun falta konpondu nahian sortu zen entitate-aipamen eredua (Luo *et al.*, 2004; Yangy *et al.*, 2004). Eredu mota honetan, aipamen bat, aurretik sortutako multzo batekin korreferentea den edo ez zehazten da.

  Ikasketarako instantzia bakoitzak, hiru osagai ditu; m_k aipamena, C_j aurreko clusterra edo multzoa, eta, klasea, m_k aipamena C_j

clusterraren partaide den edo ez adierazten duen etiketa. Ikasketarako instantziak sortzeko m_k aipamena eta bere aurreko cluster edo multzoak erabil daitezke. Hala ere, instantziak sortzeko modu honek klase negatibo eta positiboen arteko desoreka handia sor dezake, m_k aipamena aurreko multzo bakarreko partaide baita soilik. Klaseen arteko desoreka hau murrizteko, Yangy *et al.*-ek (2004) instantzia negatiboen kopurua txikitzen duen metodoa erabiltzen dute. Metodo horren arabera, m_k aipamenak ez badu aurrekaririk, ez da inolako ikasketarako instantziarik sortuko m_k aipamena erabiliz, ez positiborik noski, baina ez eta negatiborik ere. Bestela, instantzia negatibo bat sortuko da m_k eta aurreko C_j clusterra erabiliz baldin eta:

(a) m_k ez bada C_j clusterreko partaide

(b) m_k eta m_j artean dagoen aipamen bat C_j clusterreko partaide bada, non m_j $m_k$ren aurrekari gertuenekoa den

Ezaugarriei dagokionez, instantzia bakoitza cluster mailako ezaugarriez adieraz daiteke. Cluster mailako ezaugarri hauek lortzeko, aipamen-bikote ereduan erabilitako ezaugarriei predikatu logikoak (*guztiak*, *gehienak*, *edozein*) aplikatzen zaizkie. Adibidez, numeroaren bat-etortzea ezaugarriari, bi aipamenek numero berdina duten adierazten duenari, *guztiak* predikatu logikoa aplikatuz, egiazko balioa izango du m_k aipamenak C_j clusterreko aipamen guztien numero berdina badu, eta faltsua kontrako kasuan. Sarritan erabiltzen diren beste predikatu logikoak *guztiak* predikatuaren erlaxazioak dira, hala nola, *gehienak* predikatua, egiazkoa da baldin m_k aipamenak C_j clusterreko aipamenen erdien baino gehiagoren numero berdina badu eta *edozein* predikatua, egia da baldin m_k aipamenak C_j clusterreko aipamenen baten numero berdina badu.

Kontuan izan behar da test garaian, clusterrak inkrementalki sortzen direla, hau da, m_k aipamenaren aurrekari izan daitezkeen cluster hautagaiak partzialak direla. Cluster hauek $k-1$ aipamenentzat sortuak izan direnak dira.

Entitate-aipamen ereduak multzo mailako ezaugarriak erabiltzeko duen gaitasuna dela eta, aipamen-bikote ereduak baino espresibotasun handiagoa du.

- **Aipamen-mailakatze eredua** (*mention-ranking model*)
  Entitate-aipamen ereduak aipamen-bikote ereduak duen espresibotasun eza konpontzen badu ere, ez du aurrekaririk probableena identifikatzearen arazoa konpontzen. Aipamen-mailakatze ereduek, aldiz, aipamen bat emanik bere aurrekari probableena zein den zehazteko aukera eskaintzen dute, aurrekari hautagai guztiak aldi berean kontuan hartzeko aukera eskaintzen baitute.

  Mailakatzearen ideia, korreferentzia-ebazpenerako lehen aldiz (Connolly *et al.*, 1994, 1997) lanetan erabili zen. Ikasketarako instantzia bakoitza, m_k aipamena eta bi aurrekari hautagaiez osatzen da, m_i eta m_j, non bat m_k aipamenaren aurrekaria den eta bestea ez. Instantziaren klaseak bi hautagaietatik zein den hobea adierazten du. Eredu hau txapelketa (*tournament*) eredu gisa definitzen da (Iida *et al.*, 2003) lanean eta bikote-hautagai (*twin-candidate*) eredu moduan (Yang *et al.*, 2003, 2008) lanetan.

  Test garaian, aipamen bat ebazteko bi modu posible daude. Connolly *et al.* (1994) lanean, kanporatze-sinpleko txapelketa (*single-elimination tournament*) deritzon modua erabiltzen dute. Ikasketa garaian sortutako aipamen-mailakatze eredua, aurrekari hautagai posible guztiekin osatutako bikoteei aplikatze zaie aldi bakoitzean. Txapelketa galtzen duen hautagaia baztertu egiten da, hau da, aurrekaria izateko hobea den hautagaia erabiltzen da testeko instantzia berria sortzeko. Yang *et al.* (2003) lanean ere eredua aurrekari hautagai bikote bakoitzari aplikatzen zaio, baina aukeratuko den aurrekaria gehienetan hobekien sailkatu den hautagaia izango da.

  Ikasketa automatikoan egindako aurrerapenek ahalbidetu egin dute aurrekari hautagai guztiak batera mailakatzea eta ez bikoteka.

  Aipamen-multzokatze ereduek, aipamen-bikote ereduek lortzen dituzten emaitzak hobetzea lortu badute ere, ez dute aipamen-bikote ereduek baino espresibotasun handiagorik lortzen, ez baitira multzo mailako ezaugarriak erabiltzeko gai, entitate-aipamen ereduek erabiltzen dituzten moduan.

- **Multzo-mailakatze eredua** (*cluster-ranking model*)
  Multzo-mailakatze ereduek, entitate-aipamen eta aipamen-mailakatze ereduek dituzten ezaugarri hoberenak konbinatzen dituzte. Rahman and Ng (2009) autoreek proposatu zuten multzo-

mailakatze eredua, mailakatzaileetan multzo-mailako ezaugarriak erabili ahal izateko. Eredu hauek, m_k aipamen batentzako aurrekari hautagai posibleak mailakatu ordez, multzo edo clusterrak mailakatzen dituzte, ondorioz, aipamen-bikote ereduak dituen bi ahultasunak saihesten dituzte eta aipamen-mailakatze ereduak hobetzen.

ii) **Ezaugarri linguistikoak**

Ikasketarako erabiliko diren ezaugarri linguistikoak mota desberdinetakoak izan daitezke, hala nola, lexikalak, sintaktikoak, gramatikalak, distantzian oinarritutakoak, string-parekaketan oinarritutakoak, semantikoak eta cluster mailakoak. Gaur egungo korreferentzia-ebazpenerako sistema gehienek Soon *et al.* (2001) lanean aurkezten diren eta Ng and Cardie-k (2002c) hobetutako ezaugarriak erabiltzen dituzte. Ezaugarri horiek erabiliz korreferentzia-erlazio gehienak ebatz badaitezke ere, ez dira nahikoa hitz guztiz desberdinez osatutako aipamenak ebazteko, esate baterako, 4. adibideko *Osasuna*, *Taldea* eta *gorritxoek* aipamenak lotzeko.

(4) [**Osasunak**] lehenengo mailara igotzeko lehian azken astean bizi duen giroa oso polita da. [**Taldea**] lasaitzeko asmoz Oronozera eraman zituen Lotinak atzo guztiak. Oronozko kontzentrazioa beharrezkoa dute [**gorritxoek**].

Kasu horietan, ezaugarri lexikal, sintaktiko eta gramatikalez gain ezagutza semantikoa edo munduaren ezagutza beharrezkoa da. Hori dela eta, korreferentzia-ebazpenerako sistema berriagoetan WordNet eta Wikipedia bezalako ezagutza-baseetatik erauzitako ezaugarriak erabiltzen hasi zen (Ponzetto and Strube, 2006; Uryupina, 2006; Ng, 2007). Korreferentzia-sisteman ezagutza gehiago txertatzeko beste modu bat cluster mailako ezaugarriak erabiltzea izan da (Luo *et al.*, 2004; Poon and Domingos, 2008). Historian zehar erabili diren ezaugarri linguistikoen laburpena 2.1 taulan ikus daiteke.

iii) **Ikasketa-algoritmoak**

Korreferentzia-ebazpenerako sailkatzaileak entrenatzeko algoritmo ugari ibili izan dira. Horien artean gehien erabili izan direnak honakoak

Ezaugarri-mota	Deskribapena
Lexikalak	m_i eta m_j aipamenen string parekaketa
	m_i eta m_j aipamenen buruen string parekaketa
	m_i eta m_j aipamenen lemen string parekaketa
	m_i edo m_j bestearen azpi-stringa?
	...
Sintaktikoak	m_i eta m_j aposizio egituran daude?
	...
Gramatikalak	m_i eta m_j-k numero berdina?
	m_i eta m_j-k genero berdina?
	m_i (m_j) izenordaina?
	m_i (m_j) zehaztua?
	m_i (m_j) demostratiboa?
	m_i eta m_j izen bereziak?
	m_i eta m_j bizidunak/ez-bizidunak?
	...
Distantzian oinarritutakoak	m_i eta m_j-ren arteko distantzia esalditan
	m_i eta m_j-ren arteko distantzia aipamenetan
	m_i eta m_j-ren arteko distantzia hitzetan
	m_i eta m_j editatzeko distantzia minimoa
	m_i eta m_j-ren WordNeteko distantzia
	...
Semantikoak	m_i eta m_j-k izen-entitate berdina?
	m_i eta m_j-k rol semantiko berdina?
	m_j, m_i-ren aliasa da?
	m_i eta m_j-k WordNeteko klase semantiko berdina?
	m_i eta m_j-ren WordNeten oinarritutako antzekotasun semantikoa
	m_i, m_j-ren sinonimo/antonimo/hiperonimoa?
	...
Cluster mailakoak	X ezaugarria egiazkoa edozein bikoterentzat?
	Bikote guztiek X ezaugarria partekatzen dute?
	Bikote gehienek X ezaugarria partekatzen dute?
	...

2.1 taula – Korreferentzia-ebazpenerako ezaugarri linguistikoak.

dira: C4.5 erabaki-zuhaitzak (Quinlan, 1993), memorian oinarritutakoak (Daelemans and van den Bosch, 2005), entropia maximoan (Berger *et al.*, 1996; Zhang, 2004) oinarritutakoak, RIPPER algoritmoa (Cohen, 1995), bozketa bidezko pertzeptroiak (Freund and Schapire, 1999), bektore-euskarridun makinak (Support Vector Machine, SVM) (Vapnik, 1995), osoko programazio lineala (Integer Linear Programming, ILP) (Schrijver, 1986), hipergrafoen banaketarako teknikak eta sare neuronalak.

Ondorengo zerrendan aipatu berri ditugun algoritmo horiek erabili diren hainbat lanen adibideak ikus ditzakegu:

- C4.5 erabaki-zuhaitzak honako lanetan erabili dira (Connolly *et al.*, 1994; Aone and Bennett, 1995; McCarthy, 1996; Soon *et al.*, 2001; Yangy *et al.*, 2004; Yang *et al.*, 2008).
- Memorian oinarritutakoak lan hauetan Hoste (2005); Recasens and Hovy (2009) izan dira erabiliak.
- (Yang *et al.*, 2003; Luo *et al.*, 2004; Kehler *et al.*, 2004; Hendrickx *et al.*, 2007) lanetan entropia maximoan oinarritutakoak erabili dira.
- RIPPER algoritmoa Ng and Cardie (2002a, c, b); Hoste (2005); Uryupina (2006) lanetan erabili da.
- Bozketa bidezko pertzeptroiak Bengtson and Roth (2008) lanean erabili dira.
- Bektore-euskarridun makinak (SVM) lan hauetan Ng (2005); Uryupina (2006); Versley *et al.* (2008a); Rahman and Ng (2009) erabili dira.
- Osoko programazio lineala honako lanetan erabili da (Denis and Baldridge, 2007; Klenner, 2007; Finkel and Manning, 2008).
- Hipergrafoen banaketarako teknikak Cai and Strube (2010); Cai *et al.* (2011); Sapena *et al.* (2013) lanetan erabili dira.
- Saren neuronalak Wiseman *et al.* (2016) lanean erabili dira.

Ikasketa ez-gainbegiratuko teknikak

Korreferentzia-ebazpena gauzatzeko garatutako sistemen gehiengoak ikasketa gainbegiratuan oinarritutakoak badira ere, ikasketa ez-gainbegiratua erabil-

tzen duten hainbat lan ere badira. Gainbegiratutako ikasketan oinarritutako teknikek ikasteko behar dituzten eskuz etiketatutako corpusak sortzeak duen kostua dela eta, teknika ez-gainbegiratuak erabiltzea aukera egokia izan daiteke, horiek ez baitute ikasketarako etiketatutako corpusik behar. Hala ere, sistema hauek lortzen dituzten emaitzak orokorrean ikasketa gainbegiratuan oinarritutakoek lortzen dituztenak baino baxuagoak izan ohi dira.

Korreferentzia-ebazpenerako ikasketa ez-gainbegiratua erabiltzen lehenak (Haghighi and Klein, 2007) izan ziren. Horiek eredu Bayesiar sortzaile bat erabili zuten atazarako. Lan horretan oinarrituta, Ng-k (2008) Entropia Maximoan oinarritutako multzokatze prozesua aurkeztu zuen, Haghighi and Klein (2007) lanaren ahultasunak konpontzeko aldaketak proposatuz. Poon and Domingos (2008) autoreek Markov kateetan oinarritutako entitate-aipamen eredua azaldu zuten eta Ma *et al.* (2016) lanean ikasketa ez-gainbegiratuan oinarritutako multzo-mailakatze eredu sortzailea proposatzen zen.

2.3.2 Corpusak

Lehen aipatu bezela, *Message Understanding Conference* (MUC-6, 1995; MUC-7, 1998) kongresuetan korreferentzia-ebazpenerako etiketatutako lehen corpusak sortu ziren eta horrek corpusetan oinarritutako tekniken hedatzea ekarri zuen. Urteak aurrera joan ahala, korreferentzia-kateak etiketatuta dituzten corpusak asko ugaritu dira, bai ingeleserako baita beste hainbat hizkuntzatarako ere.

Poesio *et al.* (2016) liburuko "Annotated Corpora and Annotation Tools" kapituluan oso ongi azaltzen dira dauden corpusak eta dituzten tamainak. Kapitulu horretan aipatzen diren hizkuntza desberdinetarako gaur egun dauden corpusak eta guk gehitu ditugunak, adibidez, euskararako edo galizierako corpusak 2.2 taulan ikus daitezke. Nabarmena da hizkuntza gutxituetan eskuragarri dauden corpusak ez direla hain ugariak eta gehienetan tamainaz txikiagoak dira hizkuntza nagusiekin konparatzen baditugu.

2.3.3 Korreferentzia-ebazpenerako sistema ezagunenak

Korreferentzia-ebazpena gauzatzen duten eta erabiltzaileentzat eskuragarri dauden sistemen artean honako bi hauek dira azken urteetan ezagunenak bihurtu direnak:

Hizkuntza	Izena	Erreferentzia	Tamaina (hitzetan)
Alemana	Postdam commentary corpusa	(Stede, 2004)	50k
	TüBa-D/Z	(Hinrichs *et al.*, 2005)	600k
Arabiera	ACE-2005	(Walker *et al.*, 2006)	100k
	ONTONOTES 5.0	(Weischedel *et al.*, 2103)	300k
Bengaliera	ICON	(Sobha *et al.*, 2011a)	
Errusiera	RU-EVAL		
Euskera	EPEC	(Ceberio *et al.*, 2016)	45k
Frantsesa	CRISTAL-GRESEC/XRCE corpusa	(Tutin *et al.*, 2000)	1000k
	DEDE	(Gardent and Manuélian, 2005)	50k
Galiziera	-	(Garcia and Gamallo, 2014b)	45-51k
Gaztelera	ANCORA-CO-Es	(Recasens and Martí, 2010)	400k
	-	(Garcia and Gamallo, 2014b)	45-51k
Hindi	ICON	(Sobha *et al.*, 2011a)	
Ingelesa	MUC-6	(Grishman and Sundheim, 1996)	30k
	MUC-7	(Chinchor, 1998)	30k
	GNOME	(Poesio, 2004)	40k
	ACE-2		180k
	ACE-2005	(Walker *et al.*, 2006)	400k
	NP4Events	(Hasler *et al.*, 2006)	50k
	ARRAU 2.0	(Poesio and Artstein, 2008)	300k
	ICSI meeting corpusa	(Müller, 2008)	
	GENIA-MEDCO (izenordainak)	(Nguyen *et al.*, 2008)	800 dokumentu
	ONTONOTES 5.0	(Weischedel *et al.*, 2103)	1450k
	Phrase detectives	(Poesio *et al.*, 2013)	320k
Italiera	VENEX	(Poesio *et al.*, 2004)	40k
	i-Cab	(Magnini *et al.*, 2008)	250k
	LIVEMEMORIES 1.0	(Rodríguez *et al.*, 2010)	250k
Japoniera	NAIST testu corpusa	(Iida *et al.*, 2007)	38k esaldi
Katalana	ANCORA-CO-Ca	(Recasens and Martí, 2010)	400k
Nederlandera	COREA	(Hendrickx *et al.*, 2008)	325k
Portugesa	Summ-It	(Collovini *et al.*, 2007)	50 dokumentu
	-	(Garcia and Gamallo, 2014b)	45-51k
Tamil	ICON	(Sobha *et al.*, 2011a)	
Tibetera	Tusnelda (B11)	(Wagner and Zeisler, 2004)	<15k
Txekiera	Prague dependency Treebank	(Hajič *et al.*, 2000)	$\approx 800k$
Txinera	ACE-2005	(Walker *et al.*, 2006)	$\approx 200k$
	ONTONOTES 5.0	(Weischedel *et al.*, 2103)	1200k

2.2 taula – Korreferentzia-kateekin etiketatutako corpusak.

Stanford Deterministic Coreference Resolution System

Stanfordeko unibertsitatean garatutako korreferentzia-ebazpenerako sistema (Lee *et al.*, 2013) erregelatan oinarritutakoa da. Hiru multzo nagusitan bana daitezkeen 10 bahez (korreferentzia-ebazpenerako modulu espezifiko) osatua dago. Honako hauek dira hiru multzo horiek:

1. String-parekatzean oinarritzen direnak
2. Egitura bereziak tratatzen dituztenak, hala nola, aposizioak eta predikazioak
3. Izenordainen ebazpenaz arduratzen dena

10 bahe horiek banan-banan aplikatzen dira, doitasun handiena lortzen dutenak aurrenik eta doitasun baxuagokoak ondoren. Planteamendu honi esker, lehenengo baheetan erabaki ziurrak hartzen dira (doitasun handia) eta ondorengoetan ez hain ziurrak, estaldura hobetuz baina batzuetan doitasuna kaltetuz. Bahe horiek sakonki azaltzen dira 4. kapituluko 4.4 azpiatalean.

Sistemaren arkitektura guztiz modularra izanik, erraz integra daitezke korreferentzia-ebazpenerako bahe berriak. Hori dela eta, ingelesa ez den beste hizkuntzetara ere nahiko erraz egokitzen da. *CoNLL-2011 shared task* atazan (Pradhan *et al.*, 2011) emaitzarik onenak lortu zituen. Sistemaren arkitektura 2.1 irudian ikus daiteke.

Beautiful Anaphora Resolution Toolkit

BART ikasketa automatikoan oinarritzen den korreferentzia-ebazpenerako sistema (Versley *et al.*, 2008b) Johns Hopkins Summer Workshopean hasi zen garatzen eta korreferentziaren ebazpenean egindako aurrerapenak plataforma batean biltzea zuen helburu. Aurreprozesaketarako hainbat metodo, ikasketarako ezaugarri desberdinak eta MMAX2 tresna (Müller and Strube, 2006) erabiliz errore analisiak egiteko aukera eskaintzen du tresnak, betiere modulartasun izaera mantenduz. Ondorioz, BART sistema corpus eta ezaugarri multzo desberdinetara arrakastaz egokitu da, baita hizkuntza desberdinetara ere.

Oinarrian bost modulu nagusi ditu BART sistemak: 1) aurreprozesaketarako pipelinea, 2) aipamen detekziorako erabiltzen den *Mention Factory* izeneko modulua, 3) ezaugarriak erauzteko modulua (*Feature extractor*), 4) dekoderra eta 5) enkoderra. Enkoderra ikasketarako instantziak sortzeaz arduratzen da, dekoderra aldiz, test garaian hartu diren korreferentzia-erabakiak



2.1 irudia – Stanfordeko korreferentzia-ebazpenerako sistemaren arkitektura.

multzo edo clusterretan biltzeaz. Horiez gain, *Language Plugin* deritzon moduluak hizkuntzari dagokion informazio espezifikoa tratatzen du. Bost modulu nagusiez aparte, ikasketarako erabili nahi den sailkatzailea hautatzeko aukera ere eskaintzen du. BART sistemaren arkitektura 2.2 irudian ikus dezakegu.

2.3.4 Semantikaren erabilera korreferentzia-ebazpenean

Milaka dokumentuz osatutako korreferentzia-kateez etiketatutako corpusetatik lortzen den informazio semantikoa datu berrietan erabiltzeko ez dela nahikoa ohartu ziren Durrett and Klein (2013) autoreak. Ondorioz, korreferentzia-ebazpenerako sistemen garatzaileak kanpo-baliabideak erabili beharrean aurkitzen dira ezagutza semantikoa lortzeko.

Recasens *et al.* (2013) lanean azaltzen denez aipamen-bikote opakuak (hitz guztiz desberdinez osatutako aipamenak, adibidez, *Reala* eta *futbol-*



2.2 irudia – BART korreferentzia-ebazpenerako sistemaren arkitektura.

talde txuri-urdina) arloaren egoerako korreferentzia sistema batek egiten dituen errore kausen % 65 dira. Hori dela eta, korreferentzia emaitzak % 60-70etik haratago lortzeko ezinbestekoa da ezagutza semantikoa hobeto ustiatzea aipamen opakuez osatutako korreferentzia-erlazioak ebazteko. Autoreek dokumentu konparagarriez osatutako corpusa erabiliz, ezizenez (*alias*) aparte, sinonimia eta metonimia erlazioak erauzten dituzte. CoNLL metrika erabiliz F_1 neurria % 0,7 hobetzea lortzen dute urrezko-aipamenak erabiltzen dituzten kasuan.

Stanfordeko korreferentzia-ebazpeneko sistemaren errore iturri handia, erroreen % 42, sistema honek ezagutza semantikoa erabiltzeko duen ezgaitasunaren ondorio dela aipatzen da Lee *et al.* (2013) lanean.

Informazio lexikal eta entziklopedikoa biltzen duten ezagutza-baseak, hala nola, WordNet, Wikipedia, Yago edo DBPedia sarri erabili izan dira korreferentzia-ebazpena hobetzeko asmoz.

WordNet (Fellbaum, 1998) ezagutza lexikala biltzen duen baliabiderik zaharrenetarikoa da. *Synset* deritzen egiturez osatua dago eta egitura hauek hitzen adiera sinonimikoak biltzen dituzte. WordNet sinonimoak eta erlazio hiperonimikoak lortzeko oso baliabide erabilgarria da.

Wikipedia eduki libreko entziklopedia, aportazio libre kolaboratiboen bidez osatzen dena da.

Yago (Suchanek *et al.*, 2007) Wikipediako sarrerak WordNetekin lotzen dituen ezagutza-basea da.

Eta azkenik, DBPediak (Mendes *et al.*, 2012) Wikipediako datuetatik erauzitako informazio ontologiko erabilgarria dauka.

Informazioa lexikal eta entziklopedikoa erabili duten lanei dagokienez, Ponzetto and Strube (2006) autoreak izan ziren WordNet eta Wikipedia erabiltzen lehenengotarikoak.

Uryupina *et al.* (2011) lanean bateragarritasun semantikoa eta ezizenen informazioa erauzi zuten autoreek eta korreferentzia-ebazpenerako sistema bati txertatu. Erauzitako ezagutza hori desanbiguazio eta iragazpenik gabe erabiltzeak oinarri-lerroarekiko inolako hobekuntzarik ez zekarrela frogatu zuten, aldiz, desanbiguazio eta iragazpen teknika sinpleak aplikatuz emaitzak hobetzeko aukera zegoela. Horrelako teknikak erabilita, haien sistema 2 eta 3 puntu bitartean hobetzea lortu zuten.

Rahman and Ng (2011) lanean Yago erabili zuten aipamenak ezagutza-atributuekin aberasteko, baina aberasketa hau zaratatsua izan daitekeela ohartu ziren.

Ratinov and Roth (2012) autoreek euren lanean Wikipediako orriak erabili zituzten ezaugarriak erauzteko eta honela beraien sistema hobetzeko.

WordNeten oinarritutako sinonimia eta hiponomia ezaugarriekin CoNLL metrikan 60,06tik 60,42rako hobekuntza lortu zuten aipamen automatikoak erabiliz Durrett and Klein (2013) autoreek, eta 75,08tik 76,68ra urrezko aipamenak erabiltzean.

Hajishirzi *et al.* (2013) lanean, korreferentzia-ebazpena eta entitate izendunen estekatzea aldi berean gauzatzen dituen NECo izeneko sistema aurkezten da. Bi atazak aldi berean egikarituz bakoitzean egiten diren erroreen kopurua jaistea lortzen dute autoreek. NECo-k, Stanfordeko korrefentzia-ebazpenerako sistema hedatzen du bahe berriak gehituz. Bahe horiek, entitate izendunen estekatzeari esker lortutako informazioa erabiltzen dute modu automatikoan aipamenak Wikipediara lotuz eta horrela hobekuntzak lortuz, zehazki 1,2 puntuko hobekuntza lortuz MUC neurrian eta 0,3koa B^3 neurrian.

Instantzia anbiguoen, hau da, laburtutako izenen gaineko entitate-izendunen detekzioak korreferentzia-ebazpena hobetu dezakeelako intuizioa dago Durrett and Klein (2014) lanaren oinarrian, baita Wikipediatik lortutako ezagutzak ere. Aldi berean, korreferentzia-ebazpenak entitate izendunen ezagutza hobetu dezake. Entitate izendunen detekzioa eta korreferentzia-ebazpena batera gauzatzen duten kasuan CoNLL neurrian 0,48 puntuko hobekuntza lortzen dute.

Versley *et al.* (2016) autoreen arabera, sistema batean informazio lexikala eta munduari buruzko ezagutza txertatzean ez da erraza hobekuntzak lortzea baina posiblea eta erabat beharrezkoa da.

2.3.5 Hizkuntzak

Korreferentzia-ebazpenerako sortutako lehen sistemak ingeleserako diseinatuak izan baziren ere azken urteetan ingelesa ez den beste hizkuntzetan korreferentzia-ebazpena gauzatzeak interesa sortu du, eta ondorioz, lan ugari argitaratu dira.

Lehen aipatu bezala, SemEval-2010 Task 1 atazan (Recasens *et al.*, 2010) katalana (Sapena *et al.*, 2011), nederlandera (Zhekova and Kübler, 2010; Kobdani and Schütze, 2010), alemana (Attardi *et al.*, 2010), italiera (Broscheit *et al.*, 2010a) eta gaztelera (Sapena *et al.*, 2011) hizkuntzetarako sistemak aurkeztu ziren. Hurrengo urtean ospatu zen *CoNLL 2012 Shared Task* atazan berriz, txinerarako (Martschat *et al.*, 2012; Chen and Ng, 2012; Björkelund and Farkas, 2012; Xu *et al.*, 2012) eta arabierarako (Fernandes *et al.*, 2012; Uryupina *et al.*, 2012; Stamborg *et al.*, 2012) sistemak agertu ziren.

Sarritan, hizkuntza berri baterako korreferentzia-sistema garatu nahi denean, sistema osoa hasieratik sortu beharrean, beste hizkuntza baterako sortua izan den sistema bat hartu eta hizkuntza berrira egokitzen da. Adibidez, *CoNLL 2012 Shared Task*-ean txinera eta arabiera tratatzeko Stanfordeko sistema egokitu zuten sei parte-hartzailek (Chen and Ng, 2012; Fernandes *et al.*, 2012; Shou and Zhao, 2012; Xiong and Liu, 2012; Yuan *et al.*, 2012; Zhang *et al.*, 2012).

BART sistema (Versley *et al.*, 2008b) ere hizkuntza askotara egokitua izan da. Ingeleserako sortu izan bazen ere, sistemak eskaintzen duen arkitektura modular eta malguak beste hizkuntzetarako egokitzeko erraztasunak eskaintzen ditu. Hori dela eta, lan ugari aurkeztu dira non BART sistema ingelesa ez den beste hizkuntzetara egokitua izan den. (Poesio *et al.*, 2010) lanean Wikipediako artikuluez osatutako Evalita corpusa erabiliz Italiera-

ra egokitua izan zen; TüBa-D/Z korreferentzia-corpusa erabiliz alemanerako egokitu zen (Broscheit *et al.*, 2010b) lanean; polonierarako ere egokitua dago (Kopeć and Ogrodniczuk, 2012) lanean azaltzen den moduan, eta azkenik Uryupina *et al.*-k (2012) arabiera eta txinerarako egokitu zuten. Orain dela gutxi, BART bengalerara (Sikdar *et al.*, 2013) eta euskarara (Soraluze *et al.*, 2016b) egokitua izan da.

Hizkuntza gutxituei dagokienez, ezaguna da horietan gertatu ohi den baliabide linguistikoen urritasuna. Hori dela eta, korreferentzia-ebazpena moduko atazetarako tresna eraginkorrak garatzea erronka izan ohi da. Hala ere, hasi dira hizkuntza gutxituetarako garatutako korreferentzia-ebazpenerako sistemak agertzen. Azken urteotako lanetan ikus dezakegu, hungarierarako (Mihăltz, 2008), polonierarako (Ogrodniczuk and Kopeć, 2011), txekierarako (Nguỵ *et al.*, 2009), hindi hizkuntzetarako (Sobha *et al.*, 2011b), galizierarako (Garcia and Gamallo, 2014a), persierarako (Nazaridoust *et al.*, 2014) edo lituanierarako (Žitkus and Nemuraitė, 2015) sistemak garatu direla.

Tesi lan hau hasi aurretik, euskarari dagokionez izenordainen ebazpenerako ikasketa automatikoan oinarritutako Arregi *et al.* (2010) lana bakarrik zegoen argitaratuta.

2.3.6 Ebaluazio-metrikak

Korreferentzia-ebazpenerako sistemen kalitatea nola neurtu zehaztea erabat beharrezkoa da. Ebaluazio-metrika egoki batek sistema baten benetako kalitatea erakusteaz gain, ikerketa lan ezberdinen arteko konparaketa ahalbidetu behar du. Azken hamarkadetan ebaluazio-metrika ugari proposatu dira. Proposatutako metrika guztiak korreferentzia-ebazpena ebaluatzeko sortuak izan dira edota aurretik proposatutako metriken gabeziak konpontzea dute helburu.

Korreferentzia-ebazpenean, urre-patroia sistema automatikoak itzuli duen erantzunarekin konparatzen da. Konparaketarako erabiltzen den urre-patroiko aipamen eta entitateen multzoari *key* (K) deitzen zaio, eta sistema automatikoak itzultzen dituen aipamen eta entitateen multzoari berriz *response* (R).

Gaur egun, korreferentzia-ebazpeneko sistemak ebaluatzeko orduan erabiltzen diren metrikak honakoak dira: MUC (Vilain *et al.*, 1995), B^3 (Bagga and Baldwin, 1998), CEAF_e (Luo, 2005), CEAF_m (Luo, 2005), BLANC (Recasens and Hovy, 2011) eta LEA (Moosavi and Strube, 2016).

MUC, B^3 eta CEAF_e neurrien batezbesteko aritmetikoa den CoNLL neurria ere, MELA izenez (Denis and Baldridge, 2009) ezaguna, erabiltzen da korreferentzia-ebazpenerako sistemen ebaluazioetan.

MUC

Korreferentzia-ebazpena ebaluatzeko erabili den metrika zaharrena eta erabiliena da. Loturetan oinarritutako (*link-based*) metrika da, hau da, *key* eta *response* artean dauden korreferentzia-loturak konparatzen dira ebaluazio balioak lortzeko.

Entitate konkretu baten estaldura kalkulatzeko, entitate horrek *key* multzoan dituen loturak ($|K|-1$), *response* multzoan falta diren lotura kopuruarekin konparatzen dira, azken hau *key* multzoko partizioen kopuru ($|p(K)|$) ken 1 bezala kalkulatzen da. $|p(K)|$, *key* multzoko entitatearen eta dagozkion *response* multzoko entitateen arteko ebakidura da. Beraz, entitate baten estaldura:

$$R = \frac{(|K-1|) - (|p(K)|-1)}{|K|-1} = \frac{|K| - |p(K)|}{|K|-1} \tag{2.1}$$

Dokumentu baten estaldura kalkulatzeko, entitate guztien estaldurak batzen dira.

$$R = \frac{\sum_{k_i \in K}(|k_i| - |p(k_i)|)}{\sum_{k_i \in K}(|k_i|-1)} \tag{2.2}$$

Doitasuna kalkulatzeko, aurreko planteamenduari buelta ematen zaio: Orain oinarri bezela *response* multzoa hartzen da eta egiten den galdera da zenbat lotura gehitu behar zaizkion *key* multzoari, *response* multzoa sortzeko.

$$P = \frac{\sum_{r_i \in R}(|r_i| - |p(r_i)|)}{\sum_{r_i \in R}(|R_i|-1)} \tag{2.3}$$

Azkenik, MUC F-balioa kalkulatzeko doitasunaren eta estalduaren batazbesteko harmonikoa kalkulatzen da.

$$F = \frac{2pr}{p+r} \tag{2.4}$$

(2.2) eta (2.3) ekuazioek konplexuak badirudite ere erraz kalkulatzen dira. MUC metrikaren balioak nola kalkulatzen diren modu errazean ikusteko zentra gaitezen 2.3 irudian agertzen diren *key* eta *response* multzoetan. Irudian 3 entitatetan banatzen den 12 *key* aipamenez osatutako dokumentu bat agertzen da, korreferentzia-ebazpenerako sistema automatiko batek aldiz dokumentua 2 entitatetan banatzen den 12 aipamenez osatuta dagoela itzultzen digu.



2.3 irudia – Korreferentzia-erlazioak *key* eta *response* multzoetan.

Estaldura kalkulatzeko *response* multzoko entitateen araberako *key* multzoko partizioak behar ditugu. Adibidez, {1,2,3,4,5} *key* entitatearen kasuan bere partizioa {{1,2,3,4,5}} da; {6,7} entitateari dagokion partizioa {{6,7}} eta {{8,9,A,B,C}} entitateari dagokiona berriz {{8,9,A,B,C}}. Ondorioz, estaldurak honako balioa du:

$$R = \frac{(5-1)+(2-1)+(5-1)}{(5-1)+(2-1)+(5-1)} = 1$$

Doitasuna kalkulatzeko, *response* eta *key* multzoen rolak alderanztea nahikoa da. Kasu honetan {1,2,3,4,5} *response* entitatearen partizioa {{1,2,3,4,5}} da eta {6,7,8,9,A,B,C} *response* dagokiona berriz {{6,7},{8,9,A,B,C}}. Ondorioz honakoa da doitasunaren balioa:

$$P = \frac{(5-1)+(7-2)}{(5-1)+(7-1)} = \frac{9}{10}$$

Behin doitasuna eta estaldura kalkulatuta, MUC F-balioa honakoa izango litzateke:

$$F = \frac{2 \times 1 \times \frac{9}{10}}{1 + \frac{9}{10}} = \frac{18}{19}$$

MUC metrikari kritikatu zaizkion puntu ahulen artean, korreferentzia-kate luzeak sortzen dituen sistemen emaitzak hobesten dituela da bat (Luo, 2005). Dokumentu bateko aipamen guztiak korreferentzia-kate berdinean kokatzen dituen sistemak % 100 estaldura lortzen du MUC metrika erabiltzean, eta doitasuna ez da asko kaltetzen. Kalkulatu berri ditugun 2.3. irudiaren estaldura eta doitasun balioak behatuz, garbi ikusten da oraintxe aipatu dugun ideia. Batu behar ez ziren bi entitate batuta lortzen den estaldura balioa % 100 da eta doitasuna oso gutxi kaltetzen da, 0,1 puntu hain zuzen.

Bestalde, metrikari kritikatzen zaion beste puntu ahul bat aipamen bakarrez osatutako entitateak (*singleton*) ez dituela kontuan hartzen da, horiek ez baitute inongo loturarik beste aipamen batekin. Ondorioz, aipamen hauetakoren bat ez dagokion entitatean edo clusterrean kokatzeak ez du inongo eraginik doitasunean (Bagga and Baldwin, 1998).

BCUBED

B^3 metrikak, estaldura kalkulatzeko, aipamenak konparatzen ditu ebaluazio balioak kalkulatzeko eta ez loturak MUC metrikak egiten duen moduan. Doitasun eta estaldura globalak, aipamen bakoitzaren doitasun eta estaldurak kalkulatuz lortzen dira eta ondorioz aipamenetan oinarritutako (*mention-based*) metrika dela esaten da.

B^3 metrikak m aipamenaren *response* entitatean dauden aipamen zuzenen frakzioa begiratzen du, *key* multzoko entitateetako m aipamen bakoitzeko.

$$R = \frac{\sum_{k_i \in K} \sum_{r_j \in R} \frac{|k_i \cap r_j|^2}{|k_i|}}{\sum_{k_i \in K} |k_i|} \tag{2.5}$$

MUC metrikan egiten den moduan, doitasuna *key* eta *response* multzoak aldatuz kalkulatzen da.

$$P = \frac{\sum_{k_i \in K} \sum_{r_j \in R} \frac{|k_i \cap r_j|^2}{|r_i|}}{\sum_{r_i \in R} |r_i|} \tag{2.6}$$

Azkenik, B^3 F-balioa kalkulatzeko doitasunaren eta estalduaren batazbesteko harmonikoa kalkulatzen da.

$$F = \frac{2pr}{p+r} \tag{2.7}$$

2.3. irudiko adibidera itzuliz, honela kalkulatuko lirateke B^3 metrikarekin estaldura eta doitasuna. Estaldura 1 da, *key* multzoko 3 entitateen eta *response* multzoko entitateen arteko ebakidurak kalkulatzen baditugu entitate multzo berdinak lortzen baititugu.

Doitasunari dagokionez, *response* multzoko {1,2,3,4,5} entitatearen ebakidura *key* multzoko entitateak izanda {1,2,3,4,5} da, beraz, entitate horrek doitasunean 5eko ekarpena egiten du. {6,7,8,9,A,B,C} entitatearen ebakidurak *key* multzoko entitateei dagokionez bi azpimultzo itzultzen ditu, {6,7} eta {8,9,A,B,C}, beraz, entitate horri dagokion doitasuna $\frac{2^2+5^2}{7} = \frac{29}{7}$.

Doitasun totala beraz:

$$P = \frac{5 + \frac{29}{7}}{12} = \frac{16}{21}$$

Eta F-measure balioa:

$$F = 2 \times \frac{1 \times \frac{16}{21}}{1 + \frac{16}{21}} = \frac{32}{37}$$

B^3 metrikak, MUC metrikak dituen ahuleziak konpontzen ditu, doitasun eta estaldura balioak m aipamen bakoitzarentzat kalkulatzen baititu, ondorioz, aipamen bakarreko entitateekin gertatzen den arazoa konpontzen da eta ez du emaitza hobea itzultzen korreferentzia-kate luzeak sortzen dituzten sistemetan. Hala ere, Luo (2005) autoreak aipatzen duen moduan, zenbait kasutan B^3 metrikak itzultzen dituen emaitzak nahasgarriak izan daitezke.

Adibidez, inongo loturarik sortzen ez duen eta *key* aipamen guztiak *singleton* moduan uzten dituen sistemak % 100-ko doitasuna lortzen du. Bestalde, *key* aipamen guztiak korreferentzia-kate batean biltzen dituen sistemak % 100-ko estaldura lortzen du. Azkenik, B^3 metriak aipamen errepikatuak kudeatzeko gaitasunik ez duela esaten da (Luo and Pradhan, 2016). Sistema batek, *key* multzoan agertzen den aipamen bat behin baino gehiagotan itzultzen badu bere erantzunean, errepikapen bakoitzeko B^3 balioa igo egiten da.

$\mathbf{CEAF}_m$ eta $\mathbf{CEAF}_e$

CEAF metrikak ϕ antzekotasun balioa erabiltzen du bi entitateren arteko antzekotasuna neurtzeko. Kuhn-Munkresen algoritmoa erabiltzen du, *key* entitateetatik *response* entitateetarako $g*$ mapaketa hoberena lortzeko. Suposatuz K^* mapaketa optimoan dauden *key* entitateen multzoa dela, estaldura honela kalkulatzen da:

$$R = \frac{\sum_{k_i \in K^*} \phi(k_i, g^*(k_i))}{\sum_{k_i \in K} \phi(k_i, k_i)} \tag{2.8}$$

CEAF metrika erabiliz doitasuna kalkulatzeko 2.8 ekuazioko zatitzailea, $\sum_{r_i \in R} \phi(r_i, r_i)$ zatitzailearekin ordezkatzen da:

$$P = \frac{\sum_{k_i \in K^*} \phi(k_i, g^*(k_i))}{\sum_{r_i \in R} \phi(r_i, r_i)} \tag{2.9}$$

Azkenik, F-balioa honela kalkulatzen da:

$$F = \frac{2pr}{p + r} \tag{2.10}$$

ϕ mapaketan oinarrituta, CEAF metrikaren bi aldaera daude: CEAF_m eta CEAF_e. Lehenengoari, aipamenetan oinarritutako (*mention-based*) CEAF deitzen zaio eta bi entitateen arteko antzekotasuna bietan dauden aipamen berdinen kopuruarekin kalkulatzen du, hau da, $\phi(k_i, r_j) = |k_i \cap r_j|$. Bigarrenari, entitateetan oinarritutako (*entity-based*) CEAF deitzen zaio eta antzekotasuna kalkulatzeko bi entitate konparatzen ditu, non $\phi(k_i, r_j) = \frac{2 \times |k_i \cap r_j|}{|k_i| + |r_j|}$.

CEAF_m eta CEAF_e nola kalkulatzen diren garbiago har dezagun oinarritzat 2.4. irudiko adibidea.



2.4 irudia – Korreferentzia-erlazioak *key* eta *response* multzoetan.

Lehenik eta behin entitateen arteko mapaketa optimoa $g*$ lortu behar dugu. Honakoa izango litzateke *key* eta *response* multzoko entitateen arteko mapaketa optimoa:

$$\{1,2,3,4,5\} \leftrightarrow \{1,2,3,4,5\},$$
$$\{6,7\} \leftrightarrow \{6,D\},$$
$$\{8,9,A,B,C\} \leftrightarrow \{8,9,A,B,C\}.$$

Parekatutako 3 entitate pareek 5,1,5 aipamen komun dituzte, hurrez hurren. Beraz, CEAF_m $R = \frac{11}{12}$ da, $P = \frac{11}{12}$ eta ondorioz F-balioa ere $\frac{11}{12}$.

CEAF_m ordez CEAF_e aldaera erabiltzen badugu, emaitza aldatu egiten da. Parekatutako 3 entitateen F-balio lokalak 1, $\frac{1}{2}$ eta 1 dira, beraz CEAF_e estaldura $\frac{1+\frac{1}{2}+1}{3} = \frac{5}{6}$ da, doitasuna ere $\frac{5}{6}$. Ondorioz, F-balioa ere $\frac{5}{6}$ da.

CEAF metrikei ere kritikatu zaizkie hainbat ahulezi, (Denis and Baldridge, 2009) autoreek aipatzen duten moduan, CEAF metrikek mapeatu gabe gelditzen diren *response* multzoko entitateetan egindako lotura zuzenak ez dituzte kontuan hartzen. Horretaz gain CEAF_e metrikak, entitate guztiak berdin tratatzen ditu beraien tamaina kontuan hartu gabe (Stoyanov *et al.*, 2009).

BLANC

BLANC metrika, korreferentzia-ebazpena ebaluatzeko sortu zen Rand Indizearen (Rand, 1971) aldaera bat da. BLANC metrikak, korreferentzia-loturak eta ez-loturak erabiltzen ditu doitasuna, estaldura eta F balioa kalkulatzeko.

Izan bitez C_k eta C_r, *key* eta *response*ko korreferentzia-loturen multzoak hurrenez hurren eta N_k eta N_r *key* eta *response* multzoetan dauden ez-korreferentzia loturak. Korreferentzia-loturen estaldura, doitasunak eta F-balioak honela kalkulatzen dira:

$$R_c = \frac{|C_k \cap C_r|}{|C_k|}, \quad P_c = \frac{|C_k \cap C_r|}{|C_r|}, \quad F_c = \frac{2R_cP_c}{R_c + P_c} \tag{2.11}$$

Ez-korreferentzia loturen estaldura, doitasun eta F-balioak berriz balioak honela kalkulatzen dira:

$$R_n = \frac{|N_k \cap N_r|}{|N_k|}, \quad P_n = \frac{|N_k \cap N_r|}{|N_r|}, \quad F_n = \frac{2R_nP_n}{R_n + P_n} \tag{2.12}$$

BLANC metrikaren estaldura eta doitasun balioak lortzeko, korreferentzia-loturen eta ez-korreferentzia loturen arteko batezbestekoa kalkulatzen da:

$$R = \frac{R_c + R_n}{2} \tag{2.13}$$

$$P = \frac{P_c + P_n}{2} \tag{2.14}$$

Eta F-balioa honela kalkulatzen da:

$$F = \frac{F_c + F_n}{2} \tag{2.15}$$

2.5. irudiko adibidea kontuan hartuz, honela kalkulatuko lirateke doitasuna, estaldura eta F-balioa BLANC metrika erabiltzen denean.

Lehenbizi, C_k, N_k, C_r eta N_r lortu behar ditugu. Honakoak izango lirateke:



2.5 irudia – Korreferentzia-erlazioak *key* eta *response* multzoetan.

$$C_k = \{(ab), (bc), (ac)\};$$
$$N_k = \{(ad), (bd), (cd)\};$$
$$C_r = \{(bc), (de)\};$$
$$N_r = \{(bd), (be), (cd), (ce)\};$$

Beraz, $C_k \cap C_r = \{(bc)\}$, $N_k \cap N_r = \{(bd), (cd)\}$.

Ondorioz, $R_c = \frac{1}{3}$, $P_c = \frac{1}{2}$, $F_c = \frac{2}{5}$, $R_n = \frac{2}{3}$, $P_n = \frac{2}{4}$, $F_n = \frac{4}{7}$.

Emaitza guzti horiek kalkulatu ostean, balio hauek hartuko lituzkete estaldura, doitasunak eta F-balioak:

$$R = \frac{\frac{1}{3} + \frac{2}{3}}{2} = \frac{1}{2}$$

$$P = \frac{\frac{1}{2} + \frac{2}{4}}{2} = \frac{1}{2}$$

$$F = \frac{\frac{2}{5} + \frac{4}{7}}{2} = \frac{17}{35}$$

LEA

LEA (Link-based Entity Aware) metrikak dokumentu bateko entitate bakoitzaren garrantzia eta ebazpenen prozesuan lortutako zuzentasuna kontuan hartzen ditu doitasun eta estaldura balioak kalkulatzerakoan.

Ondorioz, LEAk honela ebaluatzen ditu entitateak:

$$\frac{\sum_{e_i \in E}(garrantzia(e_i) \times ebazpen\text{-}balioa(e_i))}{\sum_{e_k \in Z} garrantzia(e_k)} \tag{2.16}$$

Non entitatearen tamaina (aipamen kopurua) erabiltzen den garrantzia kalkulatzeko, hau da, $garrantzia(e) = |e|$.

e entitate baten *ebazpen-balioa* berriz honela kalkulatzen da. n aipamen dituen e entitate batek $lotura(e) = n \times (n-1)/2$ ditu. Hori horrela izanik, *key* multzoko k_i entitate baten *ebazpen-balioa*, k_i entitate horretako zuzen ebatzitako loturen zatia da.

$$ebazpeneko\ balioa(k_i) = \sum_{r_j \in R} \frac{lotura(k_i \cap r_j)}{lotura(k_i)} \tag{2.17}$$

Behin *garrantzia* eta *ebazpen-balioa* definituta, LEA metrikan estaldura honela kalkulatzen da:

$$R = \frac{\sum_{k_i \in K}(|k_i| \times \sum_{r_j \in R} \frac{lotura(k_i \cap r_j)}{lotura(k_i)})}{\sum_{k_z \in K} |k_z|} \tag{2.18}$$

Doitasuna, *key* eta *response* multzoen rola aldatuz kalkulatzen da:

$$P = \frac{\sum_{r_i \in R}(|r_i| \times \sum_{k_j \in K} \frac{lotura(r_i \cap k_j)}{lotura(r_i)})}{\sum_{r_z \in R} |r_z|} \tag{2.19}$$

Eta F-balioa:

$$F = \frac{2pr}{p+r} \tag{2.20}$$

2.6. irudiko adibidean oinarrituz, kalkula ditzagun doitasun, estaldura eta F-balioak LEA metrika erabiliz.

key multzoko entitateen multzoa $K = \{k_1 = \{a, b, c\}, k_2 = \{d, e, f, g\}\}$ da eta *response* multzoko entitateen multzoa, berriz, $R = \{r_1 = \{a, b\}, r_2 = \{c, d\}, r_3 = \{f, g, h, i\}$.

garrantzia entitateen tamaina dela kontuan hartuz, $garrantzia(k_1) = 3$ eta $garrantzia(k_2) = 4$.



2.6 irudia – BLANC

k_1 eta $k_2$ren artean dauden korrefentzia-kateen multzoak {ab, ac, bc} eta {de, df, dg, ef, eg, fg} dira hurrenez hurren.

Ondorioz, $lotura(k_1) = 3$ eta $lotura(k_2) = 6$. *ab* lotura da k_1 eta r_1 multzoen artean dagoen lotura komun bakarra. Ez dago inolako lotura komunik k_1 eta gainerako *response* multzoko entitateen artean. Modu bertsuan, k_2-k lotura komun bakarra du r_3-rekin *fg*, eta bat ere ez r_1 edo r_2-rekin. Beraz, $ebazpen\text{-}balioa(k_1) = \frac{1+0+0}{3}$ eta $ebazpen\text{-}balioa(k_2) = \frac{0+0+1}{6}$.

Ondorioz estaldura:

$$R = \frac{3 \times \frac{1}{3} + 4 \times \frac{1}{6}}{3+4} \approx 0.24$$

Doitasuna:

$$P = \frac{2 \times \frac{1+0}{1} + 2 \times \frac{0+0}{1} + 4 \times \frac{0+1}{6}}{2+2+4} \approx 0.33$$

Azkenik, F-balioa:

$$F = \frac{2 \times 0.24 \times 0.33}{0.24 + 0.33} \approx 0.28$$

AIPAMEN-DETEKZIOA

3

Improving Mention Detection for Basque Based on a Deep Error Analysis

3.0 Laburpena

Artikulu honetan 2012an euskararako garatu genuen aipamen-detektatzailearen (Soraluze *et al.*, 2012) hobekuntza prozesua azaltzen da. Sistema erregelatan oinarritutakoa da eta euskarazko aipamenen egiturak kontuan hartzen ditu. Sistema hori corpus txiki batean ebaluatu zen eta azken urteotan eman den corpusaren handitzeak sistema hobetzeko bidea ireki digu.

Aipamen-detektatzaile bat garatzeko orduan garrantzitsua da aipamenen egiturak ondo aztertzea sistemak emaitza onak izango baditu. Hori dela eta, lehenbizi, euskarazko aipamen desberdinen egiturak analizatzen ditugu eta haien agerpen kopurua aztertzen dugu 12.792 aipamenez osatutako EPEC corpusean. 10 dira corpusean ageri diren aipamen motak, horietatik ugarienak izen-kate arruntak eta izen bereziak, % 80 baino gehiago. Horrek, indarra non jarri behar den jakiteko balio izan digu.

EPEC corpuseko aipamen moten banaketa beste hizkuntzetakoen antzekoa den ikusteko, ingeleseko OntoNotes eta gaztelerako eta katalaneko AnCora corpusetako aipamen moten agerpen kopuruarekin konparatu ditugu. Konparaketa horren emaitza 3.1 taulan ikus daiteke.

Izen-kate arruntak antzeko proportzioetan agertzen dira gainerako hizkuntzetako corpusetan, hala ere ez da berdina gertatzen izen berezien kasuan. OntoNotes corpusean % 2,72 soilik dira izen bereziak eta % 13,5 eta % 12,43 gaztelera eta katalaneko AnCora corpusetan. Beste desberdintasun

Aipamen-motak	Eu	En	Es	Cat
Izen bereziak	23,82	2,72	13,5	12,43
Izenordainak	2,97	25,85	14,65	14,24
Edutezkoak	1,36	8,78	3,55	3,12
Aditz-izenak	2,26	1,93	-	-
Postposizio-lokuzioetako aipamenak	4,68	-	-	-
Mendeko perpausa duten izen-kateak	3,15	-	-	-
Elipsia	0,61	-	-	-
Koordinazioa	2,87	-	3,41	3,97
Lekuzko adberbioak	0,53	-	-	-
Izen-kate arruntak	57,75	58,85	60,62	62,86

3.1 taula – Hizkuntza desberdinetako aipamen-moten konparaketa: Euskara (Eu), Ingelesa (En), Gaztelera (Es) and Katalana (Cat).

esanguratsu bat izenordainen kopuruan dago. Izenordainen agerpen kopuru handiena ingeleseko corpusean gertatzen da, % 25,85 hain zuzen ere, eta kopuru hori txikiagoa da gaztelerako eta katalaneko corpusetan, % 14,65 eta % 14,24 hurrenez hurren. Hala ere, diferentziarik handiena euskarazko izenordainen kopuruarekin gertatzen da, % 2,97 soilik baitira izenordainak EPEC corpusean. Recasens and Hovy (2010) lanean aipatzen denez, AnCora corpusean pertsona izenordainen kopurua ingeleseko corpusekoa baino txikiagoa da, katalana eta gaztelera *pro-drop* hizkuntzak direnez, subjektu posizioan dauden izenordainak eliditu egin baitaitezke. Euskaraz, subjektu posizioan dagoen izenordaina eliditzeko aukeraz gain, objektu zuzena eta zeharkako objektua ere eliditu daitezke, *three-way pro-drop* hizkuntza baita. Hori izan daiteke euskaraz izenordainen kopurua ingelesez, katalanez eta gazteleraz baino txikiagoa izatearena.

Corpus desberdinetan agertzen diren desberdintasunik handienak kontuan izanda, hau da, izenordainen eta izen berezien proportzioak, ikus daiteke bien baturak antzekoak direla hizkuntza guztietan. % 26,79 euskaraz, % 28,57 ingelesez, % 28,15 gazteleraz eta % 26,67 katalanez hurrenez hurren. Balio hauek hizkuntza bakoitzak izenordainen erabilera dela eta desberdin jokatzen dutela iradokitzera garamatza. Dirudienez, ingelesak izenordainak erabiltzeko joera handiagoa du testuan aurrerago agertu den zerbaiti erreferentzia egiteko, katalanak eta gaztelerak izen berezien eta izenordainen arteko oreka mantentzen dute, eta euskarak izenordainen ordez izen bereziak

erabiltzeko joera nabarmenagoa duela dirudi, ziurrenik, bestela sor daiteken anbiguotasuna saihesteko.

Aipamenak aztertu ondoren, aipamen detekziorako egindako lehen hurbilpena aurkezten eta ebaluatzen dugu. Ebaluaziorako, nazioartean ezagunak diren bi parekatze metodo erabili ditugu: *Lenient Matching* edo *Partial Matching* eta *Strict Matching*. Aipamen bat zuzena da, automatikoki detektatu den aipamenaren mugak urre-patroiaren (eskuz etiketatu den aipamenaren) mugen barnean badaude eta burua (*head word*) ere aipamenaren barnean kokatzen bada (Kummerfeld *et al.*, 2011). Parekatze mota honi *Lenient Matching* edo *Partial Matching* esaten zaio. Hala ere, parekatze-metodo zorrotzagoak aplikatu izan dira. Adibidez, CoNLL-2011 Shared Task-en (Pradhan *et al.*, 2011), *Strict Matching* metodoa erabili zen. Metodo honen arabera, aipamen bat zuzena dela kontsideratzen da, baldin eta soilik baldin, urrezko aipamenaren berdina bada.

Oinarri-lerroa (B) finkatzeko lengoaia naturalaren prozesamendurako tresna generiko bat erabiltzen dugu, zatitzaile edo *chunkerra* hain zuzen ere. Aipamen egiturekin antzekotasun handiena duten egiturak zatitzaile edo *chunkerrak* itzultzen dituen izen-kateak izanik, egitura horiek aipamentzat hartzen ditugu hurbilpen honetan. % 64,28 puntuko F-measure balioa lortzen dugu ebaluaziorako *Exact Matching* protokoloarekin eta % 71,12 puntukoa *Lenient Matching* protokoloa erabiltzean. Zatitzaileak edo *chunkerrak* zehazki ez dira aipamenen detekzioa egiteko sortuak izan. Zenbait kasutan aipamen batzuk egitura sintaktiko konplexuagoak dituzte eta horrek, tresna hauen emaitzetatik lortzen diren aipamenen mugak batzutan zehazki zuzenak ez izatea dakar. Hori dela eta, tresna hauek doitu egin behar dira aipamenen detekzioa modu egokian egin ahal izateko.

Aipamenen mugak doitzeko, zatitzailearen irteera egoera finituko teknologia erabiliz egokitzen dugu eta horrela emaitzak hobetzea lortzen dugu. Eskuz definitutako erregelak konpilatuz Egoera Finituko Transduktoreak (Finite State Transducers, FST) lortu dira. Guztira 34 erregela definitu ditugu eta horiek konpilatu ostean 12 FST lortu dira. 3.2 taulan hurbilpen honekin, Basque Mention Detector (BMD), lortutako emaitzak eta oinarri-lerroarekin (B) lortutakoak ikus ditzakegu. Basque Mention Detector-arekin, % 73,36 puntuko F-measure balioa lortzen dugu *Exact Matching* protokolorekin eta % 79,68 puntukoa *Lenient Matching* protokoloarekin. Beraz, 9,08ko eta 8,56 puntuko hobekuntzak lortu dira, hurrenez hurren, oinarri-lerroarekiko.

Aipamen detekzioan hizkuntza baten ezaugarriak kontuan hartzen duen garrantziaz jabetzeko, gure aipamen-detektatzailearen emaitzak ingelesera-

	Strict Matching			Lenient Matching		
	P	R	F_1	P	R	F_1
B	62,24	66,46	64,28	67,02	75,75	71,12
BMD	73,86	72,87	73,36	78,69	80,71	79,68

3.2 taula – Oinarri-lerroa eta aipamen-detektatzailearen emaitzak. B=Oinarri-lerroa, BMD=Basque Mention Detector.

ko sortuak izan diren bi aipamen-detektzailek lortzen dituzten emaitzekin konparatu ditugu. Batetik, Stanfordeko sistemak erabiltzen duen aipamen-detektatzailea (SMD) eta bestetik BART sistemak erabiltzen duena (BRTMD) konparatzen dira. Lortutako emaitzak 3.3 taulan ikus daitezke. Gure aipamen detektatzaileak (BMD) 47,53 puntu hobetzen du konparatu den Stanfordeko aipamen-detektatzailearen (SMD) emaitza *Exact Matching* protokoloa erabiltzean denean eta 22.63 puntu *Lenient Matching* erabiltzean. BARTen aipamen-detektatzailearekiko (BRTMD) 35,01eko hobekuntza dago ebaluazioan *Exact Matching* protokoloa erabiltzen den kasuan eta 17.29koa *Lenient Matching* protokoloarekin. Lortutako emaitzek garbi erakusten dute aipamen-detektatzaileak sortzerako orduan hizkuntzaren ezaugarriak kontuan hartzeak emaitza hobea lortzea dakarrela.

	Strict Matching			Lenient Matching		
	P	R	F_1	P	R	F_1
SMD	23,15	29,22	25,83	50,25	65,98	57,05
BRTMD	34,69	42,87	38,35	54,89	72,27	62,39
BMD	73,86	72,87	73,36	78,69	80,71	79,68

3.3 taula – Aipamen-detektatzaile desberdinen konparaketa. SMD=Stanford Mention Detector, BRTMD= BART Mention Detector, BMD=Basque Mention Detector.

Hala ere, aipamen-detekzioan gertatzen diren erroreak sailkatu eta aipamen-detektzailea hobetzeko asmotan, aipamen-detektatzailearen ebaluazio kualitatibo bat aurkezten dugu ondoren. 1.904 aipamenez osatutako lagin bat erabiliz, aipamen-detekzioan gertatzen diren errore-moten eta errore-kausen sailkapen bana proposatzen dugu. Guztira 8 errore-mota eta 9 errore-kausa identifikatzen dugu.

Errore-moten eta errore-kausen sailkapenean oinarrituta sistemaren errore-analisia aurkezten da. Aipamenen % 32,09k erroreren bat dute. Horiek erabiliz errore-motak kuantifikatzen ditugu eta ondoren errore bakoitzaren kausa identifikatzen dugu. Errore-mota usuenak *Missing Mention (MM)*, hau da, urre-patroiko aipamen bat ez da detektatu kasuen % 11,50ean gertatzen da eta *Extra Mention (EM)*, urre-patroian ez dagoen aipamen bat itzultzen da, berriz, kasuen % 7,46an. Errore-kausa nagusienak, *Incorrect Chunk Tag (ICT)*, *chunkerrak* itzultzen dituen etiketaren bat okerra da % 27,93an eta *Missing Chunk Tag (MCT)*, *chunkerrak* ez du itzuli etiketaren bat % 18,92an.

Horrela, aipamen-detektatzailearen errore-mota eta eta errore-kausen banaketa lortzen dugu eta horren aurrean 5 hobekuntza proposatzen eta inplementatzen ditugu aipamen-detektatzailea hobetuz (BIMD). Proposatutako hobekuntza horiek inplementatu ostean, erroreen % 10 konpontzea lortzen dugu eta aipamen-detektatzailearen emaitzak hobetzen ditugu. Emaitza horiek 3.4 taulan ikus ditzakegu. Zehazki esanda % 74,57 puntuko F-measure balioa lortzen du sistemak *Exact Matching* protokoloarekin eta % 80,57 puntukoa *Lenient Matching* protokoloa erabiltzean.

	Strict Matching			Lenient Matching		
	P	R	F_1	P	R	F_1
BMD	73,86	72,87	73,36	78,69	80,71	79,68
BIMD	74,67	74,47	74,57	79,26	81,92	80,57

3.4 taula – Aipamen-detekzioan lortutako emaitzen hobekuntza. BMD=Basque Mention Detector, BIMD= Basque Improved Mention Detector.

Errore-analisiak erakutsi digu aurreprozesaketaren ondorioz errore ugari gertatzen direla. Hori dela eta, aurreprozesaketarako tresnetatik jasotzen diren erroreek aipamen-detekzioan izan dezaketen eragina kuantifikatzeko gure aipamen-detektatzailea partzialki urrezkoa den sarrerarekin ere ebaluatzen dugu. Sarrera partzialki urrezkoa dela diogu, sarrera horrek ez baititu hizkuntzaren maila guztiak eskuz etiketatuta. Eskuz etiketatutako lemak, kategoriak, azpikategoriak eta kate edo *chunkak* jasotzen ditugu. Funtzio sintaktikoak eta entitate izendunak automatikoki tratatuak izan dira. Egoera honetan, sistemak ($BIMD_g$) % 85,89ko F-measure balioa lortzen du *Strict Matching* protokoloarekin eta % 89.06koa *Lenient Matching* erabiltzean, hau da, 11,32 eta 8,49 puntuko diferentzia, hurrenez hurren, aipamen automati-

koak jasotzen dituen sistemaren ($BIMD_a$) emaitzarekin konparatzen baditugu. Emaitzak 3.5 taulan ageri dira. Garbi ikusten da tresna automatiko batek jasotzen duen sarrerak berebiziko garrantzia duela aipamen-detekzioan emaitza onak lortzeko orduan.

	Strict Matching			Lenient Matching		
	P	R	F_1	P	R	F_1
$BIMD_a$	74,67	74,47	74,57	79,26	81,92	80,57
$BIMD_g$	84,95	86,84	85,89	87,06	91,15	89,06

3.5 taula – Aipamen-detekzioan lortutako emaitzak sarrera automatikoarekin eta partzialik urrezkoa den sarrerarekin.

Azkenik, aipamen-detekzioan eginiko hobekuntzek korreferentzia-ebazpenean duten eragina aztertzen da. Horretarako Soon *et al.* (2001) lanean oinarritzen den korreferentzia-ebazpenerako sistema sinple batek lortzen dituen emaitzak ebaluatzen ditugu, aipamen-detektatzaile ezberdinek lortutako aipamenak erabiliz. Oinarri-lerroko aipamen-detektzailea (B), euskararako sortu dugun lehenengo aipamen-detektatzailea (BMD) eta hobekuntzak aplikatuta dituena (BIMD) izan dira aztertu direnak. Lortutako emaitzak ataza honetan ohikoak diren metrikak erabiliz, 3.6 taulan ikus daitezke.

	MUC	B^3	$CEAF_m$	$CEAF_e$	BLANC	CoNLL
B	25,17	54,39	51,62	51,92	28,13	43,83
BMD	28,36	61,62	57,96	58,91	35,56	49,63
BIMD	29,28	62,65	58,69	59,65	36,77	50,53

3.6 taula – Aipamen-detekzioaren eragina korreferentzia-ebazpenean.

Aipamen-detekzioan oinarri-lerroa 9 puntu hobetzen dugun kasuan korreferentzia-ebazpeneko CoNLL neurria 5,8 puntu hobetzea lortu dugu, 43,83tik 49,63ra, eta errore-analisia egin ondoren proposatutako hobekuntzak inplementatu ostean aipamen-detekzioan hobetutako 1,21 puntuk CoNLL neurria 0,9 puntu hobetzea lortu dutela ikusi dugu, 49,63tik 50,63ra. Aipamen-detekzioan emaitza hobeak lortzeak korreferentzia-ebazpenerako emaitzetan eragin zuzena duela ondorioztatzen dugu.

Laburbilduz, euskarazko aipamen desberdinen egituren azterketan oinarritzen den aipamen-detektatzailea aurkeztu da. Aipamen-detektatzaile hori

hobetzeko hainbat estrategia aplikatzen dira, hala nola egoera finituko teknologiaren erabilera eta errore-analisi batetik ondorioztatuko hobekuntzen inplementazioa. Aipamen detekzioan hizkuntza baten ezaugarriak kontuak hartzeak lortzen diren emaitzak hobetzen dituela frogatzen da eta sistemak jasotzen duen sarrerak ere berebiziko garrantzia duela ondorioztatzen dugu. Emaitza onak lortzeak korreferentzia-ebazpenean duen eragina ere aztertzen da. Bukatzeko, aipamen-detektatzaileak % 74,57 puntuko F-measure balioa lortzen du ebaluaziorako *Exact Matching* protokoloa erabiltzen denean eta % 80,57 puntukoa *Lenient Matching* protokoloarekin.

Improving Mention Detection for Basque Based on a Deep Error Analysis

Ander Soraluze, Olatz Arregi, Xabier Arregi and Arantza Díaz de Ilarraza

Published in *Natural Language Engineering*, 23(3):351-384

Abstract

This paper presents the improvement process of a mention detector for Basque. The system is rule-based and takes into account the characteristics of mentions in Basque. A classification of error types is proposed based on the errors that occur during mention detection. A deep error analysis distinguishing error types and causes is presented and improvements are proposed. At the final stage, the system obtains an F-measure of 74.57% under the Exact Matching protocol and of 80.57% under Lenient Matching. We also show the performance of the mention detector with gold standard data as input, in order to omit errors caused by the previous stages of linguistic processing. In this scenario, we obtain an F-measure of 85.89% with Strict Matching and of 89.06% with Lenient Matching, i.e., a difference of 11.32 and 8.49 percentage points, respectively. Finally, how improvements in mention detection affect coreference resolution is analysed.

3.1 Introduction

Coreference resolution consists of identifying textual expressions (mentions) that refer to real-world objects (entities) and of determining whether these mentions refer to the same entity. It is well known that coreference resolution is essential in Natural Language Processing applications where a higher accuracy in discourse analysis leads to better performance. Some of the tasks that can benefit from coreference resolution include information extraction, question answering, machine translation, sentiment analysis, machine reading, text summarisation, and text simplification.

In Soraluze *et al.* (2012) we presented a preliminary mention detector for Basque, evaluated on a small corpus. In this paper we present an improved version

that has been evaluated on a considerably larger corpus to obtain more reliable results. A bigger corpus has also made it possible to carry out a deep error analysis, which in turn has allowed us to identify and address some of the main sources of error.

Basque is a non Indo-European language and differs considerably in grammar from the languages spoken in the surrounding regions. It is an agglutinative, head-final, pro-drop, free-word order language isolate (Laka, 1996), which presents a number of special problems regarding mention detection.

The paper is structured as follows. After reviewing related work in Section 3.2, we describe the types of mention structures in Basque in Section 3.3. Section 3.4 compares mention types in Basque, English, Catalan and Spanish. Section 3.5 describes the experiments we carried out in order to create a mention detector, and in Section 3.6 a classification of errors types and causes made during mention detection is presented. Moreover, after a deep error analysis is carried out, further improvements are designed. Section 3.7 outlines an experiment with running the detector on gold input, with the aim of observing the effect of general natural language preprocessing tools. In order to observe how improvements in mention detection affect coreference resolution, in Section 3.8 we compare the scores obtained by a coreference model before and after the improvements in mention detection are applied. Finally, conclusions and future work are discussed.

3.2 Related Work

Much attention has been paid to the problem of coreference resolution in the past two decades. Conferences specifically focusing on coreference resolution have been organised since 1995. The sixth and seventh Message Understanding Conferences (MUC-6, 1995; MUC-7, 1998) included a specific task on coreference resolution. The Automatic Context Extraction (ACE) Program focused on identifying certain types of relations between a predefined set of entities (Doddington *et al.*, 2004) while the Anaphora Resolution Exercise (ARE) involved anaphora resolution and NP coreference resolution (Orasan *et al.*, 2008).

More recently, SemEval-2010 Task 1 was dedicated to coreference resolution in multiple languages (Recasens *et al.*, 2010). A year later, in the CoNLL-2011 shared task (Pradhan *et al.*, 2011), participants had to model unrestricted coreference in the English-language OntoNotes corpora (Pradhan *et al.*, 2007) and CoNLL 2012 Shared Task (Pradhan *et al.*, 2012) involved predicting coreference in three languages: English, Chinese and Arabic.

The coreference resolution task is commonly divided into two main subtasks: mention detection and resolution of references (Pradhan *et al.*, 2011). Mention

detection is considered a crucial task for the accuracy of end-to-end coreference resolution systems and the mention detection step has a significant impact on coreference resolution systems: Uryupina (2008) reports that 35% of recall errors in their coreference resolution system are caused by missing mentions and in Uryupina (2010) adds that 20% of precision errors are due to inaccurate mention detection, while Stoyanov *et al.* (2009) conclude that improving the ability of coreference resolvers to identify coreference elements or mentions would likely improve the state-of-the-art greatly. Chang *et al.* (2011) argue that a robust mention detector is crucial, as detection errors propagate to the coreference stage; as they show, their system, which uses gold mentions, outperforms the system that uses predicted or system mentions by a large margin (from 15% to 18% absolute difference in F_1 score). Hacioglu *et al.* (2005) also show that errors in the first stages, such as mention detection, propagate and reduce the performance of subsequent stages, and Zhekova and Kübler (2010) demonstrated experimentally that during the development phase the detection of mentions is one of the most important steps to achieve a high accuracy in coreference resolution. Also in Broscheit *et al.* (2010a) the importance of mention detection is recognised.

